

KULTURA DIBERTSITATEAREN ARRETA, HEZKUNTZA ESZENATOKI BERRIA

EDITORIALA

Beste hezkuntza eszenatoki bat, beste eskola bat?

Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluko Presidentea

PERTSONAK

Inmigrazioa eta hezkuntza

Juan Navarro Barba, Dibertsitatearen Arreta Zerbitzuko Burua. Murtziako Hezkuntza eta Kultura Sailburuordetza.

Kulturen arteko eskola, inmigrazio fenomenoari emandako hezkuntza erantzuna

Andrés Jiménez Abad, Iruñeko "Torre Basoko" BHIko Filosofia irakaslea.

FOROA

Kultura anitzeko eta kultura arteko hezkuntza Nafarroan

Pedro Olangua Baquedano, Dibertsitatearen Arreta, Kultura Aniztasun eta Inmigrazio Zerbitzuko Zuzendaria

Hezkuntza orientazioa kultura dibertsitatearen erronkaren aurrean

M^a Pilar Martínez de Eulate Salvatierra, DBHko "Mater Dei-Puy-Andéraz" ikastetxeko eta Batxilergoko "Ntra. Sra. del Puy de Estella" institutuko eskola-orientatzailea.

Espainola bigarren hizkuntza

Ana Martínez Mongay, Corellako "Alhama" BHIko Espainol eta Literatura irakaslea.

Ikastetxea, kultura dibertsitateari erantzunez

Jesús de Miguel Rodríguez, Iruñeko "Julio Caro Baroja" BHIren zuzendaria.

Tafallako "Sancho III, El Mayor" BHIko hizkuntza trinkotzeko ikasgela.

Juan Antonio Andión Gastón, Tafallako I.E.S. "Sancho III El Mayor" zuzendaria.

IKASGELA

Vanyari egindako elkarrizketa

Andrés Jiménez Abad. Iruñeko "Torre Basoko" BHIko Filosofia irakaslea.

PRENTSAKO ALBISTEAK BIBLIOGRAFIA LEGERIAREN LABURPENA



Editoriala

BESTE HEZKUNTZA ESZENATOKI BAT, BESTE ESKOLA BAT?**Javier Marcotegui Ros****Nafarroako Eskola Kontseiluko Presidentea**

Azken bost urteotan, Espainian¹ inmigrante kopuruak gorakada itzela izan du eta inmigrantearen Espainiaren eraikuntza soziala hasi da. Prozesu hori gizartearen eta ekonomiaren globalizazioaren garapen zikloan kokatu behar da. Prozesu horretan, eskola, inmigrazioa bezala, bidegurutze batean gelditzen da, globalizazioaren erdierdian, eta horrek eskolan izango dituen ondoreak ez dira ezagunak.

Inmigrazioak dibertsitatea eman dio eskolari; apurto egin da kultura bakarreko egitura. Eskolak, egoera horretan, kulturen arteko ikastetxe berri baterako aurrerapausoak egin behar ditu; hori kultura artekoa eta integratzailea izango da denentzat, eta ez ikasle inmigranteentzat bakarrik. Inmigrazioaren hezkuntza tratamendua ikasle inmigranteentzat bakarrik dela pentsatzen da, baina hori ez da horrela. Egoerak kultura arteko hezkuntza proiektua behar du. Eskolak tokikoa eta globala den mundu batean izaten, egoten eta jarduten dakiten hiritarrak prestatu behar ditu; mundu hori, osatu ere, tokian tokiko ezaugarriak eta identitatea duten taldeek eta partekaturiko ezaugarriak eta identitateak dituzten taldeek osatuko dute.

Lortu beharreko kultura arteko hezkuntzan, kultura aldagai bereizgarria da eta horren helburua guztien hezkuntza sustapena eta iraupena lortzea da; horri dagokionez, desberdintasun sozialak, kulturalak eta etnikoak ez dira

eskola porrotaren, eskolatzerik ez izatearen eta bazterkeria sozialaren eragileak izango, eta jendea etiketatze-ko edo baztertzeko elementuak ere ez dira izango.

Inmigrantea gizarteratzeko "hiritartze" edo sozializazio prozesua behar da eta hortik hobari pertsonalak nahiz sozialak aterako dira. Eskolak erantzukizun handia dauka emaitza horietan, baina batzuetan eskuak oso lotuta ditu ekintzarako.

Eskolak "hiritartze" prozesu horretan izan beharreko ekintzen inguruko gai asko planteatu dira. Oraindik ez dago erantzun bateraturik, baina argi dago hezkuntza sistemak (batik bat, derrigorrezko eskolatzea) funtsezkoak direla inmigranteak gizarteratzeko prozesuetan.

Ikasleek, orokorrean, esaten dute pozik daudela ikastetxean, eta eskola leku segurua eta atsegina dela pentsatzen dute. Hala eta guztiz ere, emaitza akademikoak, familia testuinguruaren ezaugarrien arabera ez ezik, eskolatze baldintzen arabera ere izaten dira: berandu eskolatzea ala ez, eta tresnazkoa den ama hizkuntza ala ez. Arazoa oraindik ere gehiago nahasten da DBHn; bertan, ikasleen ezaugarriei maila horretan ohikoak diren arazoak eta berezitasunak gehitzen zaizkie.

Inmigranteen familiek ahultasun maila handia dute eta hori areagotu egiten da familia autoktonoekiko elkarreragin sistematikoen eta iraunkorren urritasunaren edo gabeziaren eraginez, baita sare etnikoetan duten gizarteratze nagusiaren eraginez ere.

Ikasle inmigranteen eskolatzea era guztietako faktoreen eraginpean dago. Besteak beste, aipagarriak dira ikastetxeen kokalekua, inguruaren maila soziokulturala, gurasoen hautapenerako duten gaitasuna, etab. Horrek aditzera ematen du gehiegizko pilaketaren arazoak ez duela soluzio errazik.

¹ Ikusi Encuentro Fundazioak Espainia 2005 deritzonari buruz egindako urteroko txostena.

Pertsonak

INMIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA**Juan Navarro Barba****Dibertsitatearen Arreta Zerbitzuko Burua. Murtziako Hezkuntza eta Kultura Sailburuordetza**

Europara iritsitako inmigranteen familia bateko semetzat aurkeztu nahi dut neure burua (hirurogeiko hamarkadan); nire aurrekoak XIX. mendean iritsi ziren Murtziako Baratzera. Gure familia historia aztertuta ikusten denez, migrazio-



Juan Navarro Barba

ak betidanik egon dira gizakiaren historian, hasiera-hasieratik, eta mundu globalizatuan gero eta ohikoagoak izango dira; hori kontuan hartuta, oso gustura ibili nahiz arlo honetan lan egiten eta ikertzen.

I. Mundu Gerra baino lehen, Europa migrazioen emisorea zen. 1846tik 1915era bitartean, Europatik 43 milioi pertsona inguruk migratu zuten itsasoz gaindiko herrietara.

II. Mundu Gerran migrazio mugimendu garaikidearen (Europar eta Europarantz) hedapenik handienaren hasiera gertatu zen. Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadan, Europa ipar-mendebaldeko berreraikuntza eta industria hedapena gertatu zen, eta, aldi berean, biztanle kopuruak behera egin zuen.

Petrolioaren 1976ko krisiak "Ongizate estatuaren" amaiera ekarri zuen; horrela, urte gutxitan, ate irekiko

Pertsonak

politika hori amaitu eta, batzuetan, inmigranteak jatorrizko herrietara itzuli behar izan ziren.

Hala eta guztiz ere, Europako langile atzerritarren zifrak gero eta handiagoak izango dira, zenbait fenomenoren eraginez; esate baterako, familien bilketa berriekin eta talde horien hazkunde begetatibo handiagorekin indartzen den ezarkuntza.

Hegoaldeko Europan diktadurak erortzea, bertako jaiotza tasek beherakada handia izatea eta hango bat-bateko garapen handia, izan ere, hazkunde ekonomia, gizarte eta hezkuntza mailako hazkunde handia eragin duten faktoreak dira, batez ere Espainian eta Italian. Al-daketa horietan oinarrituz, hegoaldeko Europarako migrazio joerak aldatzen hasi ziren apurka-apurka.

Fenomeno hori bizkortu zuten faktoreak honako hauek dira: Hirugarren Munduko gerrak, pobrezia eta garapenerako inbertsiorik eza eta aurrerakuntza demokratikorik ez egotea, baita Mendebaldeko aberastasunaren eta ongizatearen mitoa ere.

Laburpen historiko honetan ikusten denez, Francesc Carbonellek "Hiru D-en teorian" adierazitakoaren arabera, *garapenak* (gaztelaniaz *desarrollo*, eta horra hor hirugarren D-a), *demografiak* eta *demokraziak* azaldu eta justifikatu egiten dituzte Hegoaldekotik Iparralderako migrazio mugimenduak, eta gainera, badirudi etorkizun hurbilean mugimendu horiek mantendu eta handitu egingo direla.

Gure ikasgeletan beti egin da dibertsitatea: elbarriak, iji-toak, sektore pobreetatik iritsitakoak, etab. Hala eta guztiz ere, gure ikasgelan benetako iraultza lortzen ari dena *ikasle inmigranteen etorrera* da. Espainiako 2004-05eko Hezkuntzari buruzko estatistiken aurrerapeneko datuen arabera (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, MEC), 457.245 ikasle atzerritar daude Estatuan, eta Nafarroan 7.937. Taldeen heterogeneitatea, hemengo hizkuntzaren ezagupenik eza, eskolatzeko desberdinak, ikaskuntza erritmo desberdinak, kultura askoren bizikidetzak, eskolarekiko itxaropen desberdinak eta abar kontuan hartuta, beharrezkoa da hezkuntza beste modu batera ulertzea. Horren eraginez, *ezkutuan baina konpondu gabe zeuden antzinako arazoak agertu dira berriro*:

- Iristen diren atzerritarrik gehienak "inmigrante ekonomikoak" dira; Hirugarren Mundutik datoz eta beharrezkoa da horien gizarteratzea denon artean lantzea. Gizarte modernoetan, hezkuntza gizabanakoaren garapen pertsonala, sustapena eta gizarteratzea ahalbidetzen duen elementu nagusia da. *Kasurik gehienetan inmigrantea ez da baztertzen atzerritarra delako*, beste kolore bat duelako edo hizkuntza ezagutzen ez duelako; bazterketa, segurtasunik eza eta diskriminazioa sortzen duen *elementu bereizgarria pobrezia* da. Bazterturiko beste biztanleria autoktono batzuekin ere gauza bera gertatzen da.
- Fenomeno horren azkartasunaren eraginez, *nolabaiteko kontrolik eza dago, erantzun sozial egokiak eta*



Kultura dibertsitateari buruzko jardunaldiak Enrique Tierno IPn (Lobosillo, Murtzia)

planifikatuak emateari dagokionez. Horren ondorioz, pilaketak eta ghettoak sortzen ari dira, talde nagusien eskola errendimenduak behera egin du, ikasle autoktonoak hezkuntza pribatuan sartzen dira eta irakasleek frustrazioa dute.

- Ahalegin itzela egiten ari da, fondo publikoekin ordainduta, ikasle inmigrante guztiak eskolatzeko. Espainian dauden atzerritarren eskubideei nahiz askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoak hezkuntzarako eskubidea onartzen die, derrigorrezko eskolatzeari etapetan, ikasle espainolei baldintza berberetan. Hala ere, emaitzak negargarriak dira: *hiritar espainolaren urtez, irakaskuntza publikoa gero eta txarragoa da, ikasle inmigranteak daudelako, eta inmigranteek ez dituzte euren helburu nagusiak betetzen*, eskolak benetako aukerak eskaintzen ez dizkielako, eta beraz, hezkuntza sustapenerako aukera berdintasuna, laneratzea eta gizarteratzea lortzen ez dutelako. Sarritan, hori gatazka kulturalizat eta determinismotzat justifikatu nahi da hori, arazoa sakon-sakonetik ez aztertze.
- Konpromisoko eta elkartasuneko jarrerari dagokionez, irakasleak aipatu behar dira nahitaez, berori baita inmigranteen hezkuntzari erantzunak sortzen inplikaziorik handiena duen taldea. Hala eta guztiz ere, *horien erantzunek ez dute abal profesionalik*, konpromiso sozialeko nahiz moraleko, intuizio pedagogikoko, altruismoko eta horri guztiari lotutako jarreretatik jarduten baitute. Administrazioek ez dute jarraibide argirik aurkeztzen, adibidez, heziketa berezia eta beharrezko materialak eta baliabideak.

Ikasle atzerritarren etorrera, izan ere, hezkuntza sistemak azken urteotan izandako erronka nagusienetarikoa da. Presioaren eraginez, arazo hori eta horren inguruko beste batzuk konpondu egin beharko dira, eta horrela, hezkuntza aldatzeko eta hobetzeko ekarpen handia egingo da. Irakaskuntza unibertsala izatean, konpromisoko eta erantzukizuneko jarrera behar da, gizarte bidezkoagoa eta zuzenagoa sortzeko. Hezkuntza beste modu batera antolatu behar da, desberdintasunen onarpenak eta horien aurkako borrokak planteaturiko beharrezkoak nahiz eskariei erantzun egokia emateko; hezkuntza, gainera,

Pertsonak

hiritar izateari loturiko eskubidetzat nahiz betebehartzat bermatu eta lehenengo nahiz bigarren mailako pertsonen bereizketa (lehenengoei babes neurriak eta gainerakoei ekintza positiborik eza eskainita) ezkututzen duten jarre-
rak salatu behar dira, sarritan hori aukera berdintasuna-
ren justifikazio faltsua erabiliz egiten baita. Horiexek di-
ra determinismo sozialeko modu berriak.

Europar eta Amerikan atzerriko ikasleekiko hezkuntza aztertzen eta ikusten izandako esperientzia luzean egiaz-
tatu dudanez, ia gauza guztiak asmatu daude (gauza
berak izen desberdinak eduki arren) eta erantzunak herri
bakoitzeko borondatearen arabera dira, kultura di-
bertsitatearen zailtasunen arabera baina gehiago.

Erronkari aurre egiteko, arazo zaharrei begi berriei begiratu behar zaie:

- Erantzun irekiak eta malguak eman behar dira, identitate kultura desberdinak kontuan hartzen di-
tuzten erantzunak. *Ez da identitate nazionala gal-
tzearen beldur izan behar, eta dibertsitateak daka-
ren aberastasunaren aldeko apustua egin behar da, kultura arteko hezkuntzaren aldeko apustua, eta bertan, hiritarra protagonista da bere identitate hi-
ritarraren eta kulturalaren eraikuntzan, askatasunez aukeratzen baititu gizateriaren ondarekoak diren mailegu kulturalak.*
- *Eskolak inmigranteak hartu behar ditu eta konpromi-
soa izan behar du pertsonaren garapen integralare-
kin; gainera, ekitatea eta justizia soziala sustatu be-
har ditu, osasunean gertatzen den bezala ("batez
ere, beharrianik handiena dutenentzat"); halaber, ez
da kutsaturik egon behar globalizazioaren eta mer-
katuko gizartearen prozesu ekonomizistekin (errenta-
garritasuna, lehiakortasuna, hautapena...).*
- *Hezkuntza eraginkorra eta kalitatekoa.* Ezinezkoa da derrigorrezko hezkuntzaren amaieran %30etik gora-
ko eskola porrota mantentzea, eta horren barruan ikasle inmigranteek tasa oso altuak dituzte. Izan ere, kontuan hartu behar da hezkuntza erabakigarria izango dela euren bizitzan.
- *Gizakiaren eta demokratikoak diren eskubideak nahiz betebeharrak sustatu behar dira.* Ez da nahikoa horiek edukitzea, erabili eta defendatu ahal izatea baizik, onartzen ez zaizkienean. Hiritartasunaren ikuspegi berriak aintzat hartuz, komunitate politiko batekoa izatearen sentimendua garatzeko, ezinbestekoa da gizabanakoa bere hiritar komunitatearekin identifikatzea; horrela, hiritartzat arlo publikoan duen konpromisoa onartzen du, eta kulturala eta erlijiosoa arlo pribaturako uzten du (ikus afrikarrek, asiarrak eta abarrek AEBn izandako esperientzia). Gaitasun hiritarrak garatu behar dira, esate baterako, balio demokratikoak, giza eskubideak, iritzi kritikoa, gatazken konponketa, partaidetza estrategiak, prestakuntza, etab.

KULTUREN ARTEKO ESKOLA, INMI- GRAZIO FENOMENOARI EMANDA- KO HEZKUNTZA ERANTZUNA

Andrés Jiménez Abad

Iruñeko "Torre Basoko" BHIko Filosofia irakas-
lea

Hezkuntza eszenato-
kiko pertsonen arte-
ko "dibertsitate"
handia dago, jatorri
geografikoaren, ohi-
turen, kulturaren,
gaitasunen eta ikas-
kuntza pertsonalean
duten egoeraren
edo historiaren era-
ginez; hori, izatez
ere, Mendebaldeko
hezkuntza sistemetako ezaugarri nagusi-
enatarikoa da.

Integrazio joerak hezkuntza eremuan kulturen arteko di-
bertsitate itzela agertzearen ondoriozkoak izan dira. Gaur egun, beste inoiz baino gehiago, gure eskolan ohi-
koa dibertsitatea da.

Ikasle atzeritarren presentzia, gure erkidegoan %10etik hurbilekoa da, unibertsitatekoak ez diren ikasleei dagokien-
ez; gainera, horrek berritasun handiak ekarri ditu hez-
kuntza sistemara: espainola bigarren hizkuntzat irakas-
tea, ikasle askoren curriculum atzerakadari eman beharreko erantzuna, ikasturtean zeharreko eskolatze ete-
na, hezkuntza nahiz gizarte mailako harrera eta integrazio neurri orokorrak eta testuinguruaren arabera, etab.

Horrenbestez, ikasle atzeritar gero eta gehiago egotea-
ren ondorioz, margo eta irizpide berriak behar dira hez-
kuntza sistema antolatze eta bertan jarduteko. *Bestea-
ren* presentzia arazotzat ikus daiteke, bizikidetzaren eta irakaskuntzako nahiz ikaskuntzako prozesuaren aldetik, baina baita gehiago ezagutzeko aukeratzat, norberaren burua hobetzeko modutzat, eta harrera, errespetua, el-
kartasuna nahiz adeitasuna lantzeko bidetzat ere. Bestal-
de, ikasleen eta euren familien inguru sozialari eta hez-
kuntzakoari buruzko gogoetak egiten ari da eskola, eta lan hori errazten duten ekintza integratuak behar dira.

Kultura topaketa

Herrien arteko elkar mendekotasun gero eta handiago-
ak eta ezagupenaren, teknologien nahiz prozesu eko-
nomikoen globalizazioak erlazio gero eta estuagoa
sortu dute kultura desberdinen artean. Kulturen di-
bertsitate hori gertakari historikoen eta giza askatasunaren
eraginezkoa da; horri orain topaketa esaten zaio, eta,
benetan aberasgarria izateko, beharrezkoa da horren
aldeko konpromiso etiko handia egotea, kulturen arte-
ko ulermenean eta baterako erantzukizunean oinarri-
tuz. Elkarriketa ezinbesteko bidea da kulturen arteko
elkarreraginerako.



Andrés Jiménez Abad

Pertsonak

Baina benetako elkarrizketa egoteko, funtsezko balio batzuk partekatu behar dira. Kulturen arteko hezkuntza berebiziko aukera da gogoetak egiteko gizaki guztien ezaugarri komunei, izaerari eta pertsonatzat duten duintasunari buruz; horrela, oinarri sendoa jarriko zaie hezkuntza erronka berriei.

Kulturen arteko topaketa integratzailea egoteko, kulturak ez dira gauza isolatutzat hartu behar, errealitatearen irakurkera irekitzat baizik, errealitatea hobeto ezagutzeko aukera ematen baitute, eta beraz, errealitatera egokitzen diren neurrian ebaluatzeko modukoak dira, baita gizakiaren balioari eta duintasunari justizia egiten dioten neurrian ere, kulturen elementu guztiek ez baitute balio bera.²

Kulturen arteko topaketarako erreferenteak

Baina, horretarako, erlatibismo kulturala gaingitu behar da, "kulturez gaingiko" edo "kultura arteko" erreferente unibertsalak behar dira, horiek kultura desberdinen ekarpenei buruzko iritzia emateko elementutzat erabili ahal izateko. Kulturen arteko aberastea bideragarria eta erakigarria izateko, partekaturiko balio unibertsalak behar dira. Oinarritzko elementu etikoak (objektiboki errespetatu beharreko elementuak) daudela onartu ezean, bizikidetzaz ezinezkoa da; izan ere, formetan eta prozeduretan ados egotea ez da nahikoa, eta beharrezkoa da denon arteko bizitza euskarritzen eta orientatzen duten printzipioetan eta justifikazioetan ere ados egotea. Laster edo berandu, bestela, biolentzia motaren bat erabiliko da.

Kultura bat ez da bizitzaren eta munduaren egituraketa edo ikuspegi itxia eta buruskoa; balio *sintaktiko* hutsezko sinboloen eta interpretazioen sistema ere ez da, hau da, bertatik kanpoko zerbaiti buruzko esangura-erreferentziarik ez duen gauza bat. Kultura *errealitatea* adierazteko eredu da. Irudi existentziala eta gizatiarra da, eta esangurez eta zentzuz beteta dago. Kultura neurtzeko ez da nahikoa horren koherentziari erreparatzea, horren balio moralak, estetikoak eta epistemologikoak ere kontuan hartu behar baita; kultura horretan gizakiari berresten eta ukatzen zaiona bereizi behar da.

Ez litzateke bidezkoa izango kultura jakinen bati buruzko iritzia bertatik kanpo ematea, beste kulturaren bateko balorazio-irizpideak erabiliz. Baina kultura batek ezaugarri jakinak eta alderdi historikoak gaingitzen duten errealitatearen alderdietara iritsi ahal da, eta horrela, benetako edo legezkoa zer den jakin daiteke, errealitatearekin eta gizatiarrarekin bat egiten duelako. Beste modu batera

esateko, edozein kultura, egiaren interpretazioak eskaintzen dituzenez, unibertsalera iritsi ahal da. Horren baliozko ekarpenak aurkitutzak dira eta gizaki guztien ondarean sartzen dira, eta ez gizabanako talde edo tradizio jakinaren ondarean bakarrik.³ Historian zehar kultura tradizioek era askotako ekarpenak egin dituzte gizakiaren jakituraren emari komunean, eta balio unibertsalen eremuan sartu dira.

Hori dela eta, guztiz bateragarria da printzipio etiko batzuen baliozkotasun unibertsala mantentzea eta, aldi berean, kulturen arteko nolabaiteko desberdintasuna mantentzea, baina kulturen arteko ulermena eta hurbiltzea sustatuz. Eskakizun bikoitz horri erantzun egokia eman ahal dion gauza bakarra, izan ere, gizakiaren inguruko egiaren bilaketa eta kontzientzien askatasunaren errespetua da; egin-eginean ere, benetako aurrerakuntza egoteko, beharrezkoa da gizaki guztiek egia ezagutzeko eta horren arabera bizitzeko duten eskubidea errespetatzea.

Gizakiaren duintasunari eta funtsezko giza eskubideei buruzko eskakizunek, bestalde, printzipio eta balio moral unibertsalen ordena osatzen dute; horrela, alde batetik, identitate kulturala mantentzen da, hori errealitatearen eta gizakiaren irakurmen irekitzat hartuta, eta bestetik, dimentsio unibertsalera eta Zuzenbideak arauturiko bizikidetzaren eremura iristeko behar dena mantentzen da, horretarako sarritan ahalegin itzela egin behar den arren. Halaber, batzuen eta besteen ohiturekiko tolerantziaren mugak ezartzeko berebiziko erreferenteak dira.

Kulturen arteko topaketa ez da ulertu behar derrigorrezko simetriaren eskakizuntzat edo kultura sinkretismotzat, funtsezko erreferente komunik gabe (adibidez, *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalekoak*); izan ere, besteen jarrera kulturalak onartzeko, ez zaie ukorik egin behar norberaren kulturaren funtsezko printzipioei, horrekin gauzen eta gizakiaren benetako balioari justizia egiten ote zaion kontuan hartu gabe.

Gizakiaren identitatea, funtsezkoa

Elkarren ulermena eta aberastea sustatu behar da, kultura bakoitzaren ezaugarriak onenetan oinarrituriko esperientzien eta ikaskuntzen bidez, neurri komuntzat gizaki guztien duintasuna hartuta. Nolabait esateko, egoera sozial eta ulermen modu jakinak sustatu behar dira, eta bertan, *funtsezko identitatea gizakiarena* izango da, eta banakako nahiz taldeko gainerako ezaugarri guztiak (autoktonoak eta kanpokoak) pertsonen duintasunaren eta giza eskubideen eraginezko eskakizun etikoaren menpe egongo dira.

² Balio epistemologiko bera eman dakieke kultura batzuek osasunari buruz dituzten ulermen magikoei eta beste gizarte batzuen ulermen zientifikoei? Etikaren aldetik baliokideak ote dira kultura batzuetako bi sexuen arteko diskriminazioa eta beste kultura batzuek gizonen nahiz emakumeen eskubideak berdintzeko duten borondate irmoa? Edo balio berekoak ote dira mendebaldeko kulturen sentimendu indibidualista handia eta beste kultura batzuen sentimendu komunitarioa? Beste modu batera esateko: kulturen arteko hezkuntza ez litzateke bere oinarritzko filosofiarekin koherentea izango eskolako praktikan elementu kultural ahalik eta gehien sartuz gero, desberdinak izatean baliotsuak direla esanez." (Generalitat de Catalunya, 16. or.). Geuk egindako itzulpena.

³ Horrexetan bereizten dira kultura eta ideologia. Azken hori ez da adierazpen intelektual edo arrazional hutsa, errealitateari eta munduari buruz, benetako autoezarkuntza lortu nahi duten adierazpenen sistema baizik; ez da egia bilatzearen eraginez sortzen, boterea lortu nahi izatearen eraginez baino. Ideologiaren artean gatazkak baino ez dira sortzen, eta inoiz ere ez elkarrizketaren topaketa aberasgarria eta egiaren bilaketa partekatua. Ideologiak "boterea lortzeko nahiaren eraginez ezarritako eraginkortasun baldintzak dira, eta beraz, eraginkorrak dira" (Volkman-Schluck, 108. or.).

Pertsonak

Derrigorrezko duintasun horretan euskarritzean, denon funtsezko eskubideen eta betebeharren erabateko berdintasuna onartu ahal da, jatorria, etnia eta egoera ekonomiko edozein izan arren. Eremu horretan, desberdintasuna errespetatzeko aukera dago, irekia den eta gizakien funtsezko eskubideetan euskarriturik dagoen gizarte eraikitze konpromisoarekin.

Kulturen arteko hezkuntzaren helburu nagusia, horren bestez, honako hau onartzea eta kontuan hartzea da: pertsonaren duintasuna eta horren eskakizun unibertsalak nahiz zehatzak, kontzientzia askatasuna, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta komunitate guztien baterako erantzukizuna.

Horretarako, inigrantetzat iristen diren hiritarrak eta horiei harrera egiten dietenak *besteen* usteak, erabilerak eta pentsaerak ezagutu eta onartu egin beharko dituzte.

Kultura arteko eskolaren erantzuna

Kultura arteko eskola gizarte anitzaren barruan dago; bakearen kultura eta pertsonak, gauzak nahiz gertaerak ikusteko modu jakina sustatzen du; horren helburua gatazkei eta desberdintasunei erantzun egokia ematea da, partaidetzaren eta negoziazioaren bidez, bakoitzari gainerakoen lekuan jartzen lagunduz eta gatazka horien sustairaz joz, arazoak sustraitik aztertze eta ekidin ahal izateko. Eskolaren eredu horrek honako printzipio eta helburu hauek eduki behar ditu, besteak beste:

- *Jarrera positiboak landu*: aurreiritziak ezabatu, bizitza ulertzeko modu desberdinak errespetatu, enpatia...
- Ikasleen (batik bat, kanpoko ikasleen) *autokontzeptu* pertsonala, kulturala eta akademikoa *zaindu eta hobetu*: ikasle guzti-guztiak pertsonatzat hartu eta onartu, segurtasun soziala nahiz afektiboa bultzatu, beste tradizio nahiz kultura batzuetako ikasleen nortasunaren alderdirik garrantzitsuenak nabarmendu, ikasle guztien partaidetza sustatu (bazerkeria ekidinez), ikastetxe curriculumean eta jardueretan kanpoko tradizioen alderdiak sartu...

- *Kultura desberdinetako ikasleen arteko bizikidetza eta lankidetza erraztu eta sustatu*: lankidetzako ikas-kuntzak eta jolasak bultzatu, harreman adeitsua sustatu, gatazken konponketa positiboa erraztu...
- *Curriculumean eta horren garapenean aukera berdintasuna sustatu*: Ikaskuntza adierazgarria sustatu, denon interesetan oinarrituz, modu bereizian ebaluatu, ikasleen aukerei nahiz gaitasunei buruzko itxaropen positiboak adierazi...
- *Hezkuntza komunitate osoaren partaidetza eta konpromisoa sustatu*, hezkuntza integratzailearen garapenean: familiei ikasle inmigranteen eta horien familien integrazioaren aldeko jardueretan eta jarreretan parte hartzeko eskabidea egin, harrerako planak garatuz eta laguntzako lan osagarriak eginez, diskriminazioa eragiten duten estereotipoak baztertuz...

Kultura arteko topaketa, azken batean, kultura desberdinetako kideen arteko borondatezko onarpena euskarritzeko moduko eredu izan behar da; horrela, bizikidetza aberasgarria eta giza garapen integrala lortu eta bakearen nahiz bakerako erantzukizunaren kultura sustatu behar du.

Baina bizikidetza eredu hori sortzeko, gainerakoengan gizakiaren aurpegia ikusten ikasi behar da. Pertsona zehatzen berehalako eta ikusteko moduko balioa da garrantzitsua. Benetako hezkuntza (eta ez ideologia hutsa) izan nahi duen kultura arteko hezkuntza pertsona bakoitzaren garrantzitsua dela dioen ideian euskarritu behar da.

Aipatutako biografia:

GENERALITAT DE CATALUNYA. DEPARTAMENT D'ENSENYAMENT, *Educació intercultural. Orientacions per al desplegament del currículum*. Bartzelona. Servei de Difusió i Publicacions, 1996.

VOLKMANN-SCHLUCK, K.H., *Introducción al pensamiento filosófico*. Madril, Gredos, 1967.

Foroa

KULTURA ANITZEKO ETA KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA NAFARROAN

Pedro Olangua Baquedano
Dibertsitatearen Arreta, Kultura Aniztasun eta Inmigratio Zerbitzuko Zuzendaria

Beste Autonomia Erkidego batzuetan bezala, inmigratioa eta globalizazioa indar handiz iritsi dira Nafarroara. Hiriak eta herriak aldatu egin dira, eta gure auzokiak kultura, etnia eta erlijio desberdinetakoak dira. Kanpotik datozenek gure kultura asimilatze norabide bakarreko esfortzua egin behar dutela pentsatzen da: "eurak egokitu eta integratu behar dira". Baina kultura dibertsitatea gu guztiok barruan hartzen gaituen erronka soziala da.

Hezkuntza eszenatokia ere aldatu egin da beste herri batzuetako ikasleak eskolatzarekin, ikasle horiek beste hizkuntza, kultura, jokabide eta balio batzuk dituztelako. Gaur egun, ikastetxeak kultura anitzekoak eta heterogeneoak dira, eta bertan, ikasleen dibertsitatea gero eta handiagoa da; beraz, ho-



Pedro Olangua Baquedano

rien "hezkuntza integrazioaren" erronka daukagu aurrez aurre. Apurka-apurka, integrazioarako joera gero eta handiagoa duten jarduketak eta kontzeptu mailako planteamenduak agertzen dira. Hasieran, beldurrak sortzen dira eta pentsatzen da "soluzioa" kanpotik etorri behar dela: "Datozela irakasleak espainola irakastera". Esperientziak dioenez, hizkuntzaren oztopo nagusia laster gainditzen da eta curriculumetako atzerakadek esku-hartze normalizatuagoak behar dituzte beheko zikloetan, eta dedikazio handiagoa behar dute goiko zikloetan. Hortaz, ikasle horiei aplikatzen zaizkien ohiko baliabideek eta ikastetxeek, Dibertsitatearen Arretarako Planaren barruan, "ikasle guztien" hezkuntza hartzen dute kontuan, kultura desberdinen ezagupenari dagokionez, horrek dakartzan balioekin eta jokabideekin, elkarrekin bizi-tzen eta gizarte berria eraikitzen ikasteko, eta bertan gizabanako bakoitzaren errespetua eta laguntza nagusituko da, horren desberdintasun pertsonalak eta sozialak aintzat hartuz. Kultura anitzeko gizarte batetik kultura arteko gizarte batera igarotzea lan zaila da, eta eskolak, administrazioek eta gizarte osoak inplikazio handia behar dute horretan.



Buñuelgo Ikastetxe Publikoko ikasleak ("La Voz de la Ribera" deritzen emandako argazkia)
Alumnos del Colegio Público de Buñuel

Nafarroan dauden kanpoko ikasleei buruzko datuak: eskolatzera gero eta handiagoa izan da azken bost urte hauetan: 2000/01ean %2,3 (unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak dituzten nafarrei dagokienez) eta 2004/05 %8,7. 2004/05 ikasturtean nolabaiteko geraldia egon da eta 2005-06 urterako aurreikuspen bera dago. Irakaskuntza publikoak horien %80 eskolatzen du eta kontzertatuak %20. %98,6 G/A eredueta dago. %52,28 Iruñean eta horren eskualdean dabilta, %18,73 Tuteran, %8,07 Martzillan, %6,23 Lizarran eta %4,32 Tafallan. Iberoamerikarrak %67,36 dira.

Hezkuntza Sailak kultura dibertsitatearen hezkuntza arretarako agindua eman du, irailaren 16ko 253/2004 Foru Aginduaren bidez, eta bertan honako alderdi hauek jasotzen dira:

1. Hezkuntza arreta ikastetxe bakoitzeko integrazio, normalizazio, barneratze, arreta pertsonalizatu eta testuinguru **printzipioetan biltzen da**. Dibertsitatearen arretaren barruan, dagoeneko ohikoa den dibertsitate hori apurka-apurka onartu egin behar da, normalizazio irizpideekin, eta ez espezializazio irizpideekin. Horretarako, lehenetasunezkoa da ohiko arretako neurriak aktibatzea, eta gero, laguntza batzuen esku-hartzea bideratu behar da.

2. Arlo horretako berehalako hezkuntza beharrianak espainolaren irakaskuntza, curriculumaren indartzea eta ikasleen harrera nahiz integrazioa dira. Ikastetxeek programa bereziak garatzen dituzte

beharrian horiei erantzun egokia emateko eta kultura arteko hezkuntza garatzeko, eta programa horiek, berri, Dibertsitatearen Arretarako Planean eta ikasle berrien Harrera Planean jasota daude. Beharrian horiek baloratzeko eta programa indargarriak nahiz espainola irakasteko programak garatzeko eragile nagusia tutorea da.

3. Hezkuntza neurriak etapa desberdinetan

Atzerriko ikasleen eskolatzera sustatzeko, ikastetxe guztietan bi neurri ezartzen dira: Haur Hezkuntzako eta DBHko 1. mailako talde guztietan *bi plaza erreserbatzea*, diru publikoekin eutsitako ikastetxeetan, eta *Eskolatzeko 11 Toki Batzorde eratzea*, atzerriko familiei eskolatzeko prozesua errazteko eta horri buruzko aholkua eta informazioa emateko, eta gainera, ikastetxe bateko eskolatzera proposatzeko, gurasoek aukera askatasunerako duten eskubidea errespetatuz.

Ikaslea eskolatzera: Ikastetxeek Dibertsitatearen Arretarako Plana eta Harrera Programa lantzen dute, ikasle berriei eman beharreko hezkuntza erantzuna baloratzeko eta antolatzeke.

Haur Hezkuntza: Ikasleak murgiltze eta arreta normalizatuko prozesuan sartzen dira. Aipagarriak dira tutorearen eginkizuna, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak nahiz ikasleak integratzeko prozesuak jorratu eta dibertsitatearen arretarako neurriak aplikatu behar baititu.

Lehen Hezkuntza: Lehenengo zikloan Haur Hezkuntzan bezalako arreta eskaintzen da. Hasierako ebaluazioaren ostean, eskolako ikasturte bateko desfasea duten ikasleak beherako mailan hasten dira. Desfasea bi ikasturtekoa izanez gero, gainera, bere beharrianen arabera laguntzak eskaintzen zaizkio. *Bigarren eta hirugarren zikloetan* tutoreek, dibertsitatearen arretarako orduetan, espainola ikasteko eta indartzeko programak

garatzen dituzte. Etapa honetan beste ikasturte bat egiteko aukera erabili behar da, eta neurri hori beheragoko zikloetan ere aplikatu behar da, ziklo horiek ondorengo ikaskuntzak euskarritzen dituztelako.

Baliabide osagarriak

- 5 ikastetxe publikori eta kontzertaturi 49 irakasle orokor eman zaizkie, tutoreak indartzeko eta espainola irakasteko programen garapenean laguntzeko; horrekin batera, heziketa, material didaktikoak eta aholkularitza eskaintzen dira.
- 12 ikastetxe publikori eta 2 kontzertaturi (kultura dibertsitatearen arloan beharrian handikoak, curriculum mailako atzerapen maila handikoak, espainolaren ezagupenik gabeak edo gizarterako arazo handikoak), beste irakasle bat eman zaie, aipaturiko programak indartzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

- Ikastetxeek, lehenengo eta behin, baliabide eta neurri arruntak aplikatu behar dituzte, curriculum eta antolaketa mailakoak (indargarriak, A/B pilaketak, errepikapenak), dibertsitateari arreta egokia emateko, eta atzerriko ikasleen eta egoera soziokultural txarrean dauden ikasleen arretari lehentasuna eman beharko diote. 15 urtetik gorakoentzat, curriculum mailako desfase handiak daudenean, neurri bereziak daude: C nahiz UCA taldeak, Curriculum Dibertsifikazioa eta arloko irakasleak.
- Baliabide osagarriak: Beharrian handia duten Bigarren Hezkuntzako 2 institutu publikori 3 irakasle eman zaizkie, kultura dibertsitatean laguntzeko. Aipagarriak dira *espainolaren ikaskuntza intentsiborako Hizkuntza Murgiltzeko Programa*, *harrerako kulturaren ezagupena*, *integrazioa*, curriculum indartzeak eta familiei emandako laguntza. Ikasgela horiek zonako 9 ikastetxe publikotan eta 2 kontzertatutan daude. Iruñean eta Tuteran, ikasgelak dituzten ikastetxeetara beste ikastetxe batzuetako ikasleak joaten dira, astean hiru egunetan, lauhileko osoan, eta epe hori luzatzeko modukoa da. Jardunaldiaren erdia soziolinguistika arloko irakasle batek ematen du eta beste erdia zientziaren arloko irakasle batek. Beste bi egunetan, ikasleak euren jatorrizko ikastetxera joaten dira. Irakasleek material didaktikoak, aholkularitza eta heziketa dituzte. Gainera, "Huarte" BHI 14 urtetik gorakoak diren eta aurretiazko eskolatze akastuna duten ikasle inmigranteentzako ikasgela bat dago.

4. Beste laguntza aipagarri batzuk:

- Materialak, ikasketak eta esperientziak lantzeko aurrekontu partidak; material didaktikoen lorpena eta zabalkundea; ikastetxe publikoei eta kontzertatuei egindako deialdiak, kultura arteko hezkuntza sustatzen duten proiektuak eta materialak lantzeko; ikastetxe publikoei eta kontzertatuei emandako laguntzak liburueterako, eskolako materialerako, Soin Hezkun-

tzako jantziatarako, irteeratarako...; ikastetxe kontzertatuei emandako laguntzak, kultura dibertsitateari laguntza emateko irakasleatarako.

- Argitalpenak: Dibertsitatearen Arretarako Plana, Harrera Programa, gurasoentzako informazio gida, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hasierako ebaluazioa, espainolaren irakaskuntza bigarren hizkuntzatzat. Irakasleen Heziketarako Plana. Ijitoak diren ikasleei laguntzeko programak, Ijitoen Idazkaritza Diozesiarrekin eta Iruñeko Udaletxearekin. Ikastetxeei emandako aholkularitza. Kultura portugaldarreko programak (4 ikastetxe) eta sasoikako langileak eskolatzeko programak (11 ikastetxe). Urteroko zentsuaren lanketa.

05-06 ikasturterako berritasuna. Lehen Hezkuntzako hamar ikastetxe publikotan hasten da, 3. zikloko ikasleei laguntzeko, horiek eskolak amaitu ondoren ez baitute ikasketa errazten duen familia ingururik. MEC edo CAN deritzenek hartzen dute parte horretan. **Absentismoa edo eskola bertan behera uztea murrizteko programa esperimental, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako.** BHI bitan hasi da eta ikasleen jatorrizko ikastetxeetan jarduketak egiten dira, familien laguntzarekin eta eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak laguntzeko erakundeetan. MEC deritzonak parte hartzen du.

HEZKUNTZA ORIENTAZIOA KULTURA DIBERTSITATEAREN ERRONKAREN AURREAN

M^a Pilar Martínez de Eulate Salvatierra
DBHko "Mater Dei-Puy-Andéraz" ikastetxeko eta Batxilergoko "Ntra. Sra. del Puy de Estella" Institutuko Eskola-Orientatzailea

Eskola-orientatzailetzat, nolabaiteko kezka profesionala sentitzen dut gure ikasleen dibertsitateak planteatzen duen erronkaren aurrean, dibertsitate hori sailkapenerako faktoretzat hartuta, migrazio jarioen ondoriozkoak eta guztiz bereizgarriak diren ezaugarri etnikoen eta kulturalen arabera. Artikulu honetan, gure erkidegora beste herri batzuetatik azken bosurtekoan iritsi diren gazteen kasua aztertuko dut, migrazio fenomenoak dimentsio sozial globala duela eta halakotzat aztertu behar dela ahaztu barik.



M^a Pilar Martínez
de Eulate Salvatierra



Excursión a Pamplona de los alumnos del colegio
"Mater Dei-Puy-Anderez" de Estella



Excursión a Pamplona de los alumnos del colegio
"Mater Dei-Puy-Anderez" de Estella

Ikastetxeetan egin behar den lehenengo lana edo lan nagusia, izatez ere, "harrera planak" lantzea da, gazteei eta horien familiei begira. Horren helburua hezitzaileen eta harrerako ikasleen arteko "elkar ulertze" ona egotea da. Era askotako egoerak daude eta horiek banakako soluzioak behar dituzte. Hizkuntzaren aldetik dauden zailtasunak edo oztopoak dira gure arretaren barruan sartu beharreko oinarritzko lehenengo alderdiak. Lehenetasunen ordenan, horixe izango da gaingitu beharreko lehenengo oztopoa. Ikasleen jatorria, jakina, bat dator estatistika ofizialetan agertzen diren datuekin. Gure zonan eta ordena honetan, ekuadortarrak, kolonbiarrak, magrebtarrak, errusiarak, moldaviarrak, errumaniarak eta abar nagusitzen dira.

Gure ikasleen dibertsitateak horretarako aukera ematen duenean, itzultzaileak diren beste ikasle batzuen laguntza eduki daiteke, eta horrela, lehenengo kontaktua erraztuko dugu; beste kasu batzuetan, zenbait hizkuntzatan editaturiko gidak erabiltzen ditugu (kultura dibertsitate saileko lankideek utzitako gidak), eta beste hainbat kasutan, mikak noizean behin estualdietatik ateratzen gaitu.

Lehenengo lan honetan, beharrezkoa da bestearen lekuan jartzea; gatazken konponketan erabiltzen duen taktika ona da eta, gainera, aplikagarria da egoera askotan; halaber, ikasleenganako eta horien familia egoerarako hurbiltze handiagoa eragiten du.

Badakigu iragana atzean utzi eta zalantza etorkizuna duten familien aurrean kokatzea zaila dela. Gainera, ez da ahaztu behar Espainiara iristen direnean lehenetasuna ematen dietela euren oinarritzko beharrezane. Lehenengo beharrezana euren gabezia ekonomikoak konpontzea da, baita enplegu egonkorra lortzea ere; azken baten, biziraupenerako borrokatzea. Gero, gizarteratzeko, geure erakunde publikoetara nahiz ohituretara egokitzeko eta hemengo ezaugarriak barneratzeko ahalegina egingo dute; azkenik, zailtasun horiek gaingitu ondoren, seme-alaben hezkuntzari helduko diote, euren seme-alabak ikaskideengana hurbildu eta abar egin beharko dute.

Eskola orientazioko eguneroko lanean funtsezkoa da ikasle inmigranteekin kontaktatzea, horien eguneroko birlakaeraren jarraipena egitea eta horien familiekiko koordinazioa garatzea, nahiz eta lan hori sarritan estuago lotuta egon geure ekimenetara eurek planteatzen dizkiguten kezketara baino. Laguntza ahalik eta onena emateko, hasierako ebaluazioa egin behar dugu, oinarritzko curriculum ezagupenetan kokatzeko. Ezinbestekoa da profesionalen koordinazioa: irakaslea edo tutorea, orientatzailea eta, kasu batzuetan, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak edo haurtzaroko taldeak, eta jakina, familiak.

Ikasle inmigranteen indizeak aztertuta ikusten denez, ikasturte honetan Bigarren Hezkuntzako ikasle guztien %8ra eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen %12ra iristen dira. Ehuneko horrek balorazio bikoitza dauka; alde batetik, pozik gaude gure ratioek gora egin dutelako eta hori ikastetxeei egonkortasuna emateko lagungarria delako. Horri dagokionez, ikasleen kultura nahastea eta dibertsitatea aberasgarria da multzo osorako, eta gainera, lagungarria da elkarrekin bizitzeko eta errespetatzen ikasteko, eta azken batean, tolerantzia lantzeko (gizarte irekia, ulerkorra eta anitza lortzeko bermea). Balantzaren beste aldean (ez hain positiboa), ikasle inmigrante horien curriculum mailak daude. Kasurik gehienetan euren adin kronologikoen eta euren dagozkien mailen azpitik daude. Horrenbestez, egoera horrek giza baliabideen eta baliabide profesionalen hedapen handia behar du, eta horrek, sarritan ikasturteak hasita daudenez, apurto egiten du gure programa eta planifikazioa, eta horrela, eskola antolaketa berriro egituratu beharra izaten dugu.

Lizarrako zonan, hain zuzen ere, Aiegin eta Lizarran, nire iritzi eraginkortasunez ari gara lanean, 2004-2005 ikasturtean indarrean sartu ziren Eskolatzeko Batzordeetan, horiek ikasturte honetan ere martxan baitaibiltza. Esan behar da Batzordea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta kontzertatuen ekimenez osatu zela, hain zuzen ere 2002ko urtarilean. Inmigranteen etorrera masiboa ikusita, ikasleen banaketa ahalik eta bidezkoena egin behar izan genuen, ikastetxeen artean. Horretara

rako, zorrotz bete ditugun irizpideak trazatu ziren, eta ikasle guztiak eskolatzeko arazoak izan ditugu, ikasgelak beteta daudelako.

Aurreikuspen orokorrak eta gure inguruaren ezaugarri endogenoak kontuan hartuta, pentsa zitekeen egoera hori egonkortsu egingo zela, baina denborak erakutsi digunaren arabera, batik bat familien bilketa berrien eraginez, aurreikuspenak gainditu egin dira, eta beraz, gure Erki-degoan sarturiko ikasle kopuruak banaketa arazo larriak sortu ditu.

Gure ikastetxeetan egunero garatzen dugun integrazio lan horretan, era askotako arazoak ditugu. Sarritan, ikasle horien lehentasunak ez dira eskola mailakoak. Arazoa larritu egiten da Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, hau da, lan munduan sartzeko adina gero eta hurbilago duten ikasleen kasuan. Argi dago, ikaslea zenbat eta gazteagoa izan, hainbat eta errazago lortzen dela integrazioa eta ikaskuntzen parekatzea. Aztertu beharreko aldagaiak gutxiago dira eta metodoen eraginkortasunak nahiz protokolizazioak eraginkortasun askoz ere handiagoa dute.

Integrazio planaren ikuspegi globala ezin daiteke mugatu eskolara; izan ere, hori oinarritzakoa eta sarritan bihoz-kadakoa izan arren, ez du bermatzen gazte horien gizarteratzea. Urte hauetan ikusi denez, ikasle inmigranteen kopurua txikia denean beranduago hasten dituzte ikasle autoktonoekiko harremanak, baina azkenean integratu egiten dira. Etorrera "masiboa" izan denean, talde iragazgaitzak sortzeko joera dago, eta ez dute horrenbeste bilatzen gainerako ikasleekiko erlazioa.

Itxaropen onak daude, ikasle inmigranteen kopurua gure landa gizarte txikiaren sozializazio gaitasunaren araberrakoa izanez gero. Ikastetxeetan eduki behar dugun rola tutoretzetatik eta ikasgeletatik lan egitea da, inmigranteei eta hemengo ikasleei elkarrekin bizitzeko, elkar errespetatzen eta integrazioa sustatzen irakasteko.

Ikasturte bakoitzeko arlo guztiei aplikatzeko moduko zeharrekoi gaitetarik, garrantzitsua da giza balioen ikaskuntzan eta garapenean lan egitea, baita gainerakoen errespetuan, kultura, gizarte eta arraza dibertsitatearen tolerantzian, eta haur emigranteen integrazioarekiko partaidetza aktiboan.

Harremanen hobekuntza sustatzen da, familiak eskola komunitatean inplikaturik, espainola ikasiz, eskolatik kanpoko jardueretan parte hartuz, ibilaldiak nahiz bizikidetzak jarduerak garatuz eta, batik bat, kanpoko ikasleekiko era guztietako diskriminazioak, irainak edo mespretxuak baztertuz.

Hezitzaileok lan handia eta garrantzitsua daukagu inmigrazioaren arloan; eskuzabalak, irekiak eta ulerkorrak izan behar dugu gure gizartea osatzen duten gazte horien beharrezanekin eta gabeziekin, gazteok zailtasun handiagoak eta baliabide gutxiago baitute hemengo ikasleek baino.

ESPAINOLA BIGARREN HIZKUNTZA

Ana Martínez Mongay

Corellako Alhama BHiko Espainol eta Literatura irakaslea

1. Etorkizuneko erronka edo nekez konpontzeko moduko arazoa?

16 urtera arteko ikasle guztien eskolatzak, besteak beste, gure hizkuntza sistematikoki kultura dibertsitatearen arretaren erronka planteatzen du. Bigarren hizkuntzaren (espainola) irakaskuntza dibertsitatearen arretarako neurri nagusienetarikoa da eta ikastetxeek ondo garatu behar dute hori, aurrean duten erronka handiari aurre egiteko.



Ana Martínez Mongay

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eragina duten erabakiak hartzeko orduan, beharrezkoa da irakasle guztiek (eta ez ikasle horiei espainola irakatsiko dietenak bakarrik) ohar batzuk kontuan hartzea, eta ohar horiek estu lotuta daude hizkuntzaren irakaskuntzari, ikasle inmigranteen eta ikasi beharreko hizkuntzen arteko erlazioari eta hizkuntzari berari, eskolaren testuinguruan ikasteko tresnatzat.

Lehenengo oharra, izan ere, hizkuntzen ikaskuntzak eta irakaskuntzak didaktikaren arloan azken urteotan arreta berezia jaso izanaren zergatiari edo zergatiei buruzkoa da:

- Hazkunde ekonomikoaren eta demokraziaren eraginez, kultura eta merkataritza trukeen gorakada handia izan dute, eta horrela, hizkuntzen ikaskuntzak interes handiagoa dauka.
- Autonomietan dauden eta batera bizi diren hizkuntzen onarpena lagungarria izan da hizkuntza dibertsitatearako eta eskolan kontaktuan dauden hizkuntza desberdinen irakaskuntza nahiz ikaskuntza egoerei buruzko hausnarketarako.
- Hizkuntza desberdineko biztanlerien migrazioak egon dira; horrek aldaketa behar du egitura sozialean eta, horien barruan, hezkuntzaren arloko egituretan.
- Psikologia kognitiboko ikasketek agerian jarri dute hizkuntzak ezagupenak lortzeko, arazoak konpontzeko eta informazioa prozesatzeko tresnak direla.

Bigarrenaz, ikastetxe batek harrera prozesuan planteatu beharreko aurretiazko gaien artean, aipagarriak dira baztertu beharreko aurreiritzi guztiak; izan ere, aurreiri-

tziekin ezin daiteke aurrerapausorik eman beste hizkuntza batzuetan mintzatzen diren ikasle inmigranteen etorreraren eraginezko arazoen soluzioan. Besteak beste, aipagarria da hiztunek (kasu honetan, ikastetxeko irakasleak eta ikasleak) hizkuntza desberdinei buruz duten adierazpena. Denen buruan, modu inplizituan, sakon sustaturik daude honakoak bezalako ideiak: "lehenengo eta bigarren mailako hizkuntzak daude", "eleoniztasunak balio handia dauka, baldin eta hitz egiten diren hizkuntzek gizartean ospe handia badute", etab.

Idea horiei dagokienez, fenomeno sozial bat egiaztatzen da: hizkuntzak ez dira arazoa, eta inmigranteen hizkuntzei eta ikasi behar duten hizkuntzari buruzko ideiak horien egoera sozioekonomikoen arabera dira. Horri dagokionez, zuzendaritza taldeak, irakasle klustrotzat eta hezkuntza komunitatetzat, ikuspegi positiboa planteatu behar da eta horrek honako alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Hitztunek hizkuntzei dagokienez dituzten jarrerak eta adierazpenak goitik behera alda daitezke, hizkuntza erabilera batzuk edo beste batzuk bultzatzeko.
- Eskolak testuinguru desberdinetara egokitu behar du; gainera, estrategia hobeak bilatu behar ditu ikasleria gero eta heterogeneoarentzat.
- Ikasleengan hizkuntza desberdinen aldeko jarrerak sustatu behar dira.
- Ikastetxeek harrerako eredia bermatu eta biztanleria osoa sentibilizatu behar dute (ikasleak, irakasleak eta gurasoak ere barne) inmigrazioaren hizkuntzen alde.

Amaitzeko, gure muga linguistikoak gogoratu behar dira, hau da, beste hizkuntza batzuen ikaskuntza izan ditugun esperientziak, eta horrela, ikasle horien lekuan jarri ahal izango gara. Gure hizkuntza ezagutzen ez dutenez arazo handiagoak dituzte, euren gaitasunak eta euren hizkuntza egindako eskolatzeko mailak handiak izan arren; itxuraz ez dakite ezer, baina aurretiazko ezagupen asko dituzte eta horiek aktibatu egin behar dira irakaskuntzan, eta horrela, ikastetxeko Hezkuntza proiektuetan kultura arteko ikuspegi sartuko dugu.

2. Irakasleen heziketa:

Zalantzarik gabe, erronka horri aurre egiteko, beharrezkoa da irakasleek espainola bigarren hizkuntzatzat ikastea. Hasieran, hizkuntzen irakasleak bakarrik hezteko aukera aztertu zen, halako ikaskuntzetako adituak izateko. Hala eta guztiz ere, apurka-apurka ikusi zen arazoa irakasle guztientzat zela eta, atzerriko



Hezkuntza Sailak espainola bigarren hizkuntza izateari buruz egindako argitalpenak

hizkuntza baino gehiago, sarrerako hizkuntza edo tresnako hizkuntza zela; hortaz, horren erabilera nahiko hurbiltzen zen hemengo ikasleek eskolan erabiltzen zuten hizkuntzara. Horrenbestez, horrek sozializazioa hizkuntzatat duen garrantzia ahaztu barik, hizkuntzak edukien hizkuntzatat zuen irakaskuntza areagotu beharra ikusi zen. Beraz, etapa eta arlo guztietako espainoleko eta literaturako irakasleak hezi beharra ere ikusi zen. Ez da komunikazioa hizkuntza bakarrik, batez ere heziketako hizkuntza edo edukien bidezko hizkuntza baita.

Idea hori erabakigarria izan zen irakasleak hezteko jarduerak diseinatzeko eta ikastetxeen antolatetari buruzko neurriak gomendatzeko orduan. Alde batetik, hizkuntzaren irakaskuntzarako didaktika bat sakondu behar zen, arlo horretan bilakaera egokia lortzeko; bestetik, ikastetxeetan hizkuntzaren tratamendurako garatzen ziren neurri guztiak zentzuzkoak izateko, Dibertsitatearen Arreta Planaren zatitza eta, horren barruan, Harrera Planaren zatitza hartu behar ziren, eta ikastetxeek horiek aldatu egin beharko zituzten, ikasle berri horiengana ere heldu ahal izateko.

Horrela, hasieran, heziketa trinkoa eta orokorra egiteko ekimena abiatu zen, arloak ezagutzeko, halako ikasleen dibertsitatearen arretari loturiko arazoetara hurbiltzeko eta komunikazio ikuspegiaren barruan modu jakinean lan egiteko. Une horretan, argi ikusi zen ikasle horiei hizkuntza laguntzako eskolak hizkuntzetan eta ama hizkuntzetan adituak ziren irakasleak eman beharko zizkietela, irakasleok horretan prestakuntza handiagoa zutelako; halaber, ikastetxeei esan zien komenigarria zela eskola horiek Lehen eta Bigarren hezkuntza ematea, gutxienez astean hamar ordutan. Hala eta guztiz ere, laster agerian gelditu zenaren arabera, heziketa hori beste arlo batzuetako irakasleentzat ere interesgarria zen, ikasle inmigranteen irakaskuntza den erantzukizuneko delako eta laster edo berandu denak inplikaturik gelditzen direlako ikasle inmigranteen arretan.

Tafallako "Sancho El Mayor" Institutuaren esperientziak (aldizkari honetan azalduta) agerian jartzen du planteamendu horren ondorengo garapenak emaitza oso onak eman zituela. Hizkuntzaren irakaskuntzari eskainitako arreta handiagoa ez ezik (hizkuntzaren tratamendu trinkoko ordu gehiagorekin ikasgelan), inplikaturiko irakasleek ikasleekin modu errazean lantzen dituzte beste arlo batzuetako edukiak, baina ikasleek ezagupen horiek eta hizkuntza aldi berean eskuratzeko aukera ematen duen programazio egokiarekin; horrela, denbora laburragoa ematen zitzaien ariketetan, komunikazioa jolasetan eta ohiko eskuliburuak egoera estereotipatuak bakarrik oinarritzen ziren gaiei edo jardueri. Irakasle talde horrek erabilitako oinarritzko materialak benetako testuak izan ziren: egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, arlo desberdinetako testuliburuak, formularioak eta ikastetxeko ohiko agiriak. Ikasgela barruko malgutasunaren eraginez, ikasle batzuk ohiko taldean sartu ahal izan ziren ikasturte berean, eta gainera, ikaskideen kalifikazioak edo hobeak lortu zituzten.

Gaur egun, gai horretan hezitako irakasle kopurua 400ekoa da eta horren barruan hezkuntza etapa guztiak sartzen dira. Heziketa modalitateek ere bilakaera eta dibertsifikazioa izan dute. Ikasturte orokorretatik (informazio kantitate handikoak) mintegietara igaro zen, eta horietan irakasleek euren materialak diseinatu eta beste ikaskide batzuen esku jartzen zituzten (<http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/multiculti/el2.php>). Une honetan biak konbinatzen dituen modalitatea daukagu: irismen handiko heziketa paketea eta jardueran inskribatzen diren irakasleen praktika. On-line erako ikasturte hau, gainera, oso eroso da, etxean egiten baita, baina ikasleen presentzia behar duten bi bilkura eta tutoreen etengabeko laguntza eskatzen dira.

3. Ondorioak:

Orain urte batzuk hasitako bidea hasi da emaitzak ematen, bai argitalpenen arloan eta bai gaian hezita dauden irakasleen arloan. Beste herri eta autonomia erkidego batzuetako esperientziak aztertu ondoren, programak garatu dira, errealitatearekiko, gure hezkuntza nahiz gizarte testuinguruarekiko eta eszenatoki berri honetan gurekin batera dauden ikasle inmigranteekiko kontaktuan oinarrituz. Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da denok ere (administrazioa, irakasleak, gurasoak eta ikasleak) erronkaren garrantziaz jabetzea, baita ikasle horiekin espainolaren irakaskuntzaren aldetik hartzen diren dibertsitatearen arretarako neurriek etorkizunean izango duten garrantzi historikoaz eta sozialaz jabetzea ere.

IKASTETXEA, KULTURA DIBERTSITATEARI ERANTZUNEZ

Jesús de Miguel Rodríguez

Iruñeko "Julio Caro Baroja" BHIren zuzendaria

Ez ditut komentatuko inmigranteentzako hezkuntza arretari buruzko teoriak, eta teoria berri ere ez dut azalduko. Aditutzat idazten dut, hitz horren esangura onean, hau da, inmigranteen eta bazterketa soziokulturala duten gutxiengoek hezkuntza lanean esperientzia luzea duen pertsonatzat. Ez da erraz aurkitzeko moduko ezaugarria, kontuan hartuta Bigarren Hezkuntzako institutu gutxiak dutela (ikastetxe kontzertatuen eta pribatuen kasuan batek ere ez) halako praktika handia arlo honetan.



Jesús De Miguel Rodríguez

Proposatzen dudana eta egiaztaturiko emaitzak dituen "errezeta" baliozkoa da Nafarroako ikastetxe guztietara; beste gauza bat inmigranteei eskaintzea da.

Aurretiatzko baldintzak eta ezinbesteko pausoak:

A. Eskaria

Ikasle inmigranteen gurasoek nahi dute institutuak euren seme-alabei beharrezko tresna praktikoak, kulturalak eta psikosozialak eskaintzea, haur horiek laneratu ahal izateko eta hemengo gizartean harremanak edukitzeko nahiz bizikidetzat garatzeko. Ez dute baztertuta bizi nahi eta badakite hezkuntza soluziorik egon ezean zigor-arazoa aurkitzeko arrisku larria dutela.

B. Hezkuntza eredua

Gaske inmigrante horientzat institutua aukera bakarra da; hori jakinik, gure eginkizun nagusia eskola porrotari eta porrot pertsonalari aurre egitea da, eredu integratzaile baten bidez. Berma guztiarekin irakatsi, hezi eta integratu behar ditugu: gaske inmigranteak eta hemengoak afektibitate positiboko giroan hazten eta hezten dira ondoen, zentzuzkoa eta irmoa den eskakizunarekin. Permisibitatearekin ez da ezer lortzen, irizpide argirik ez duten gaske horien kasuan. Orientazio argirik eta betebeharrak irmorik ez duen inmigrantea bazterturik gelditzen da hasiera-hasieratik.

C. Eskaintza

Hezkuntza eskaintza egokia duten ikastetxeak. Inmigranteak, talde garrantzitsutzat, ikastetxe gutxira joaten dira. Eskakizuna: edozein ikastetxetara joan ahal izatea eta ikastetxe horiek hezkuntza "errezeta" egokia emateko prest egotea, hau da, bidezko banaketa eskaintzea. Baina banaketa horrek, beste neurri batzuekin batera eskaini ezean, ez du arazoa konpontzen. Pentsa dezagun jabetxe batera salmonellosiarekin kutsaturiko ehun anoa oilasko iritsi direla. Hondamena da ehun mahai-kiderentzat eta jabetxearen irudirako. Ehun anoa horiek ehun jabetxetan banaturik egonez gero, horiek segurutzat ez lukete izen onik galduko, kutsatuen kopurua berbera izan arren. Lehen guztiak jabetxe bakarrean eta orain ehun jabetxetan. Horrek ez dakar kontsolamendu handirik. Soluzioa: kutsadura ekiditen duen higie-ne plana. Erabiltzaile guztiek (abetelekoak, hilegikoak, sukaldariak...) higie-ne arauak bete behar dituzte.

D. Inplikazio soziala

Bidezko banaketa baino lehen, gizarte, politika eta hezkuntza mailako plan globala behar da, balioei dagokienez. Plan horrekin ere ez da erraza izango gaiari aurre egitea, baina plan barik ezinezkoa izango da. Balio kontua da.

Ohar bat: Zergatik ez ditugu seme-alabak inmigrante edo gutxiengo kopuru handiko ikastetxe batera eramaten? Gutxietsi egiten dugu bertako irakaslearen funtzioa eta lana? Balio kontua da? Zure uste, arduradun politikoei lehentasunezko hezkuntza arretarako ikastetxetzat hartu beharko lituzkete halako ikastetxeak, eta horrela, baliabide material eta giza baliabide bereziak eman beharko litzekete? Esate baterako, langile soziala egon beharko luke (Komunitaterako Zerbitzuen

Irakasle Teknikaria) absentismoa kontrolatzeko, familiekin harremanetan jartzeko...

E. Harrera Plana

1. Familia eta ikaslea institutura doazenean, Komunitaterako Zerbitzuen Irakasle Teknikariak elkarriketa egiten du euren, eta horien eskolatzeari eta gizarte nahiz familia egoerari buruzko informazioa biltzen du; halaber, hezkuntza sistemari, ikastetxeko eskaintzari, dirulaguntzei eta abarri buruzko informazioa ematen die. Lehenengo elkarriketa horren helburu nagusia segurtasuna eta laguntza eskaintzea da, eta ez da formula-rio burokratiko hutsa izan behar.
2. Orientatzaileak, hizkuntzako eta matematikako didaktika sailekin koordinazioan, ebaluazio psikopedagogikoa egiten du, eta horren barruan gaitasun intelektualei loturiko proben aplikazioa (ahozkoak ez diren probak), espainolaren ezagupena eta curriculum mailako gaitasuna sartzen dira. Gaitasunen ebaluazio hori baliozkoa da inmigrantea apurka-apurka erreferentziako talde batean sartzen joateko.
3. Denbora jakina igarotakoan, berriro ere ikaslearen egoera baloratu eta ikasturtea, maila eta Dibertsitatearen Arretarako neurriak erabakitzen dira. Neurri horiek aplikatzean, kontuan hartu behar da ikasle horiek dituzten ikaskuntza zailtasunak eta laguntzako ikasleenak ez direla berdinak. Euren gabeziak jatorrizko herriaren eta geure herriaren arteko desberdintasun kulturalen eraginezkoak dira, eta beraz, horiekiko esku-hartzea eta itxaropenak desberdinak izango dira.

Bi talde nagusi izango ditugu: espainolez hitz egiten duten inmigranteak eta espainolez hitz egiten ez dutenak. Biek ere azpibanaketa bera dute: batzuek alfabetatze ona eta itxaropen handiak, eta besteek eskolatzeko txarra eta itxaropen handirik ez.

- Azken batean, Institutuak honako beharrian hauek konpondu behar ditu:
- Familia/institutua bitartekaritza.
- Curriculum gaitasuneko banakako ebaluazioa.
- Ikasleen eta familien interesen eta itxaropenen balorazioa.
- Ikasleak curriculum arruntean errazago sartzeko estrategien sustapena (heziketako hizkuntza, gako kulturalak, ikaskuntza zehatzak...).
- Espainola, hizkuntza hori ezagutzen ez duten ikasleentzat.

F. Espainol programa atzeritarrentzat

Inmigranteen integratzeko tresnarik eraginkorrena eta ezinbestekoa, izan ere, harrerako herriko hizkuntza ondo ezagutzea da, eta "komunikazio maila-



Julio Caro Baroja - La Granja BHIko Batxilergoko ikasle bati egindako agurra

ko trebetasunak" edukitzea ez da nahikoa. Hizkuntzaren ezagupen urria edukiz gero, inmigrantea bazterturik gelditzen da. Inmigrante kopuru handia dute ikastetxeetan, espainoleko programa bat egon behar da, bertan hasi eta hizkuntza ezagutzen ez duten atzeritarrentzat, baita Nafarroan aspalditik egon arren gabezia handia dutenentzat ere. Programa iragankorra izango da eta espainola nahiko ondo menperatu arte iraungo du; ikasgelatik kanpo egingo da, autoktonoen hizkuntzaren funtzioak eta abar ikasten dituzten bitartean. Izan ere, eurentzat, hasieran behintzat, funtsezkoagoa da komunikazioko hizkuntza, eta gainera, horrela ez dute oztopatzen taldeak ikasgelan izan beharreko ikaskuntza, hau da, kontzeptu mailako ikasgaien orduetako ikaskuntza, eta hori hizkuntza espainoleko irakasleek ematen dute, berori bigarren hizkuntzatzat irakasteko metodologia ezagutzen duten irakasleek; horretarako erabiltzen den materialak kontuan hartuko du jasotzaileen adina, ikasgelan barregarri ez gelditzeko. Programa hori berez ez da helburua; izan ere, inmigrantearen integratzeko balioko du, baita gainerako ikasgaietan eta arloetan errendimendua ahalbidetzeko ere.

Inmigrante bat ez da inoiz ere Institututik beste ikastetxe batera irtengo ezein programatarako: ez du ezagupen gehiagorik hartzen eta, azkenean, maila sozialean nahiz afektiboan ez du integratzeko lor- tzen.

G. Gozagarriak

Ikasle inmigranteak, eredu integratzaile baten barruan, Nafarroako hezkuntza eskaintza anitza agertzen diren edukiak jasoko ditu, eta horiek ondo egokiturik daude bere egoera pertsonalera; eduki horien artean, aipagarriak dira hezkuntza beharrian bereziak (HBB), batxilergoko sari berezia ekarriko duen bidea, C aukera, ibilbideak, etab.

Baina, aurretiazko baldintzak bete ezean, bazterkeriari loturiko arazo sozial larria izango dugu.

Horixe da nire "errezeta" eta ez da sukaldaritzako eskuliburuetan agertzen direnak baino laburragoa. Horren eraginkortasunaren sekretua ia-ia sukaldariak berak ere ez du ezagutzen.

Gure ikastetxean, denak gelditzen dira pozik? Diotenez, nik ez dakit, San Pedrok soilik uzten ditu guztiak pozik, atea igaro ondoren...

Oharra: Kultura anitzeko praktika duen norbaitek nire teoria ukatzeko ardurarik hartuz gero, hori ohoragarria eta pozgarria izango litzateke niretzat.

TAFALLAKO "SANCHO III, EL MAYOR" BHIKO HIZKUNTZA TRINKOTZEKO IKASGELA

Juan Antonio Andiñ Gastón

Tafallako "Sancho III El Mayor" BHIko zuzendaria

Gure ikasgeletan ikasle dibertsitate handia egon da beti (curriculum gaitasun maila desberdineko ikasleak, motibazio eta interes desberdineko ikasleak, erritmo eta ikaskuntza estilo desberdinekoak, inguru eta testuinguru soziokultural desberdinetatik iritsita-koak...); hala eta guztiz ere, azken urteotako migrazio fenomenoak, gure hiritako fisionomia aldatzeaz gain, gure ikastetxeetako egoera ere aldatu egin du, eta dibertsitate hori areagotu egin du, bai modu kuantitatiboan eta bai kualitatiboan.



Juan Antonio Andiñ Gastón

Orain dela bost edo sei urte, gure ikasgeletan nekez ibiltzen zen atzerriko ikaslerik, are gutxiago espainola eza gutzen ez zuen ikaslerik, hala ere, presentzia hori orain ohikoa da eta ez du ia inor ezustean harrapatzen.

Horren ondorioz, formula egokiak aurkitu behar izan dira talde horren hezkuntza beharrezko erantzuna emateko; talde horren hezkuntza mailako lehentasuna espainola ikastea da.

Espainolaren ezagupena eta erabilera, bai ahoz eta bai idatziz, ikasle horien beharrezko nagusia da, bai ikasleok gizartearen nahiz eskolan integratzeko, bai arloaren zein ikasgaiaren ikaskuntza lortzeko.

Horretarako, eta gure ikastetxeetako ikasle inmigranteen beharrezko linguistikoei eta soziokulturalei erantzun egokia emateko, "Hizkuntza Hobetzeko Ikasgelak" izenekoak sortu dira, eta horiek oinarritzko helburu hauek dituzte:

- Ikasleek oinarritzko gaitasuna lortzea, ikaskideekin komunikatu ahal izateko eta ikasgela arrunteko curriculumean ibili ahal izateko.
- Egunero erabiltzen duten inguruko alderdi kultural eta sozial nagusiak ezagutzea.

Ikasgela horiek dibertsitate berriari erantzuna emateko sortu dira, eta berez ere heterogeneoak dira. Bertan dabilen ikasle guztiek beharrezko bera dute, espainolaren ikaskuntza; hala eta guztiz ere, beste edozein ikasle talderen kasuan bezala, ikasgelaren barruan desberdintasun handiak daude. Ikasgela horien barruan, gutxienez, gainerako ikasle taldeen arteko dibertsitate bera dago, hau da, dibertsitatea dago aurretiazko heziketaren, gaitasunen, beste kultura batzuekiko errespetu jarraitu eta abarren aldetik. Beraz, kontuan hartu behar da dibertsitatearen barruan dibertsitatea dagoela. Horren adibideztzat, honako alderdi hauek ikusiko ditugu:

- Dibertsitatea ikasleen jatorrian; horren eraginez, ama hizkuntza eta kultura ugari daude.
- Ikasleek eta familiek hemengo eta kanpoko hizkuntzari eta kulturari dagokienez dituzten jarrera desberdinak.
- Espainolaren menperatzeko maila desberdina.
- Ikaskuntza estilo desberdinak.
- Ikaskuntzarako motibazio desberdina.
- Aurretiazko eskolatze desberdina eta heziketa maila desberdina.
- Ikasleen adin desberdinak.

Gure hasierako esperientzia

2002ko irailean gure ikastetxera ikasle atzerriarren kopuru handia heldu zen eta horiek ez zekiten espainolik; hori ikusita, Hezkuntza Sailak baimena eman zigun "hizkuntza egokitzenen" ikasgela sortzeko.

Hasieratik ere, ikasgela aldi baterako baliabideztat hartu genuen, eta horren helburu nagusia beharrezko hizkuntza gaitasuna lortzea zen, ikasleek eskola curriculumean sartu ahal izateko.

Ikasgela eremu irekia eta malgua zen, edozein unetan ikasle berriak sartuko baitziren bertan; eta, gainera, beste ikasle batzuk, lortutako hizkuntza gaitasunaren arabera, ikasgela arruntetan sartuko ziren.

Ondoren, ikasgela horren funtzionamenduaren ezaugarri nagusiak azalduko ditugu, eta horiek kasuan kasuko ikasurteko azken memorian jasota daude (esperientzian parte hartu zuten irakasleek egindako memoria).

Ikasleak

Ikasturtea hasi zenean, ikasleria antzeko adineko (12-13 urte) 11 ikasleak osatzen zuten, eta guztiek zuten ikasgelaren funtzionamendua errazten zuen ezaugarri komuna: batek ere ez zuten espainola ondo menperatzen.

Talde hori Bulgariako zazpi ikasleak, Marokoko bik, Brasilgo batek eta Portugalgo beste batek osatzen zuten. Ikasturtean zehar ikasle gehiago sartu zen, besteak beste Txinako ikasle bat.

Hizkuntza ez ezagutzearen eraginezko ohiko arazoei, curriculum mailako desfase handiak gehitzen zitzaizkien; halaber, ikasturtean zeharreko sartze berantiarrek ere arazotsuak ziren.

Hasieran, espainolaren ezagupenaren aldetik, taldea nahiko homogeneoa zen ("denak hasi ziren zerotik"), baina handik gutxira desberdintasunak sortu ziren erritmoen eta motibazioaren aldetik.

Lehen esan dugunez, martxan jarri zenetik ikasgela lehenengo pausotzat hartu zen, ikasle horiek ikastetxean sartzeko, eta gainera, dibertsitateari arreta egokia emateko neurri egokitzat ere hartu zen. Izan ere, ikasteko eta beharrezko hezkuntza arreta jasotzeko ingurua izan zen, eta kasu batzuetan, institutuan laguntzak bilatzen ziren, bazterreko egoera sozioekonomikoa neurri batean arintzeko. Eskolako materiala eskaintzeaz gain, beharrezana zutenei laguntzaile sozialak eskaini zitzaizkien, baita Caritas eta abar ere.

Ikasleak ikasgela arruntetan zeuden, euren adinaren arabera, eta beste alderdi batzuk ere aintzat hartuta, esate baterako, ikasgelan bakarrik ez egotea, denak ikasgela berean ez egotea, ikasgela adeitsuak edo arazotsuak egotea...

Ordutegia

Ikasgelan 28-30 eskola-ordu ematen ziren astero. Ostiraletako lehenengo bi orduak irakasleen arteko koordinazioarako eta beste bilera mota batzuetarako uzten ziren (zuzendaritza taldeekin egindako bilerak, Hezkuntza Sailako aholkulariekin...).

Bi ordu horietan, ikasle bakoitza erreferentziako ikasgelara joaten zen, eta horrek, hasiera-hasieratik, aukera eman zuen espainolik ez dakiten ikasle atzerritarrek ikasgela arruntera joateak sortzen dituen arazoak jakiteko. Gainera, ikasturtearen hasieratik, ikasleek euren erreferentziako ikasgeletara joan ziren.

Baliabideak

Baliabide nagusia, eskola-komunitateak emandako laguntza alde batera utzita, ikasgela bera izan zen, eremu fisikoa, izan ere, topalekua eta, nolabait ere, ikasleen "babeslekua" izan zen.

Ikasgelak honako hau zeukan: hizkuntzen ikaskuntzarako ikus-entzunezko metodoak erabiltzeko gaitasuna zeukan ordenagailua, audio-musikako ekipoa, kaseteak, hiztegiak, atlasak, mapak (ikasgelako hormetan), munduko bola, testuliburuak (gehienak atzerritarrentzako espainolari buruzkoak), espainola bigarren hizkuntzatzat irakasteko metodoak, aldizkariak (ikasleentzako modukoak, ikasgelan eta etxean erabiltzeko), hiztegiak, karpetak (ikasle bakoitzarentzat eta irakasle bakoitzarentzat bat),...

Gainera, didaktika sail desberdinetako materialak erabili ziren.

Kasete-zintak eta programa informatikoak zeuden, espainola bakoitzak bere kontura ikasteko, eta horrela, une batzuetan ikasle taldeak egin ziren, arreta indibidualizatuagoa lortzeko.

Irakasleak. Koordinazioa

Ikasgelan lau irakasle erabili ziren, eskola-ordu kopuru desberdinarekin: tutorea-orokorra (15 ordu), ahozko adierazpena I (6 ordu), ahozko adierazpena II (5 ordu) eta testu idatziak (2 ordu).

Irakasle bakoitzaren arduraldia eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eskakizunak kontuan hartuta, arloak astero irakasle-tutoreak programatzea erabaki zen, eta hori, gainera, ikasgelako irakaskuntzaren eta lau irakasleen arteko koordinazio lanen arduradun nagusia izan zen. Bi irakasleek ahozko hizkuntza lantzen zuten eta lauk testu idatziak lantzen zituzten (ulermena eta sorrera).

Astero, irakasle taldea bildu egiten zen, programazioa erabakitzeko, iritziak emateko, errepikapenak eta ezkutatzak ekiditeko, lanak diseinatzeko, testuak aukeratzeko, etab.

Koordinazioa errazteko, laneko bi tresna sortu ziren: astero programazioa eta ikasgelako egunkaria. Bigarren tresna hori oso garrantzitsua eta erabilgarria izan zen; irakasle bakoitzak ikasleekin landutakoa edozein unetan kontsultatu ahal izateko pentsaturik zegoen.

Ikasleei dagokienez, karpeta bat eman eta, bertan, euren sorrerak gordetzen zituzten.



Tafallako "Sancho III el Mayor" ikastetxeko ikasleak

Foroa

Ikasleak apurka-apurka ikasgela arruntetan hastea

Lan egiteko modua, ezagupen arlo desberdinetako benetako testuen erabilera eta hizkuntzaren ikaskuntza eman dako ordu kopurua lagungarriak izan ziren ikasle horiek laster ikasgela arruntetan sartzeko. Abenduaren hasieran, ikasle bakoitzak lorturiko hizkuntza gaitasunaren maila aintzat hartuta, horiek apurka-apurka ikasgela arruntetan sartzea erabaki zen.

Kasu bakoitza aztertu ondoren, urtariletik aurrerako ordu kopuruak eta ikasgaiak erabaki ziren. Ikasleak ikasgeletan sartu baino lehen, bilera bat egin zen bertako irakasleekin, eta ikasle horientzako helburuak (batez ere hizkuntzaren aldetik) azaldu zitzaizkien, baita horiek eman beharreko arreta mota ere, batik bat ulermen orokorrera bideraturiko arreta.

Hurrengo hiletan, ikasgai berrietan hasteko aukera planteatu zen berriro, beti ere kasuak banan-banan aztertuta.

Hizkuntzan Murgiltzeko oraingo programa

2004/2005 ikasturtean, Hezkuntza Sailak ikasgela horien antolaketa eta funtzionamendua arautu zuen, Hizkuntzan Murgiltzeko Programaren bidez (HMP). Antolaketa horri dagokionez, honako hau esan daiteke:

- Orokorrean, ikasleak programari atxikita egongo dira lau hilabetetan. Aldi hori luzatu egin daiteke, espainolaren erabileraren gaitasun funtzionalaren maila ebaluatu ondoren.

- Programa astean hiru egunetan garatzen da, eta egunero sei ordu ematen dira (hiru gizartearen nahiz hizkuntzaren arlorako eta hiru zientziaren nahiz matematikaren arlorako).

- Beste bi egunetan, ikasleek euren ohiko ikasgeletan jarraitzen dute.

Gure ikastetxean dagoen ikasgelaren antolaketa, joan den ikasturteko, Sailak ezarritako eredu horri jarraitzen dio.

Bi ereduok, lehen azaldutakoak eta oraingoak (Hezkuntza Sailak araututakoa), helburu bera dute, hain zuzen ere, ikasleak gizarteratzea eta eskolatzea ahalbidetzen duen hizkuntza gaitasuna lortzea; hala eta guztiz ere, bi ereduok desberdintasunak ere badituzte, eta bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu.

Eredu berriaren alde ona hau da: espainolaren ikaskuntza eskaintzeaz gain, kasu kasuko arloko hizkuntza ikasteko aukera ere ematen du, nahiz eta hasieran, ikasleak espainola ezagutzen ez duenean, bien helburua ikaslea ahoz ondo mintzatzea izan, ikastetxeko eta biziko den inguruko bizitza ondo interpretatu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, eredu horrek alde txar handi bat ere badu, gure lehengo esperientziari dagokionez; izan ere, lehen ikasleak apurka-apurka sartzaren ziren ikasgela arruntetan, bakoitzaren ezaugarrien arabera. Eredu berri horretan, ikasleak, eskolatzearen hasierako unetik, astean bi egunetan joaten dira ikasgela arruntera; bertan, euren beharrezko araberako arreta pertsonalizatua eta egokia jasotzen dute, espainolik jakin ez arren.

Ikasgela

VANYARI EGINDAKO ELKARRIZKETA

Andrés Jiménez Abad

Iruñeko "Torre Basoko" BHIko Filosofia irakaslea

Vanya Antonova Batxilergoko 2. mailan dabil orain, "Benjamín de Tudela" deritzon BHI-n, eta 18 urte ditu. Bulgariakoa da eta Ribaforadan bizi da, Nafarroako erriberan.

Kontatu apur bat gure girora, lur honetara, jendera, ikasketetara eta abarrera egokitzeko prozesua nolakoa izan den. Esate baterako, Nafarroara iristean moteldu egin behar izan duzu ikasketen maila, hori gure hezkuntza sistemara egokitu ahal izateko?

— Bai, Bulgarian orain urte bat edo bi aurrerago ibiliko nintzateke, Maila Ertainean, horixe baita, gutxi gorabehera, honen pareko maila.

Familia osoarekin bizi zara hemen?

— Bai, nire familia osoa dago hemen, baina hasieran aitarekin bakarrik etorri nintzen, orain dela 6 urte,



Vanya Antonova

1999an. Gero, 2001aren hasieran, ama etorri zen. Bi ahizpa ditut, bata zaharragoa eta bestea gazteagoa, eta hirurok Bulgarian gelditu ginen: bakarrik bizi ginen, baina lotara izeba-osaba batzuen etxera joaten ginen. Nire ahizpa zaharragoak 16 urte zituen orduan eta nik 14. Ia nire ama zen niretzat, eta oraindik ere bada. Hilabete batzuk geroago, irailaren 15ean hona etorri ginen.

Ikasgela

Nola gogoratzen duzu etorrera? Gogorra izan zen?

— Hemen gogorrera institutua izan zen. Ez genuen hizkuntza ezagutzen. Alfabetoa eta hitz solte batzuk baino ez genezizkien. Heldu eta batera, 17an edo 18an, ikas-tetxera etorri eta 20an ikasgelara hasi ginen. Orduan Bulgariako bi ikasle zeuden, hiru hilabete lehenago hasita, eta apur bat lagundu ziguten. Ikasgeletan, irakasleek galdetu baina nik ez nuen ezer ulertzen, ezta izena galde-tzen zidatenean ere. Hasieran ingeles apur bat erabiltzen zuten.

Orain oso ondo hitz egiten duzu. Harrigarria da Ekialdekoek orokorrean hizkuntzetarako duten erraztasuna. Asko kostatu zaizu espainola ikastea?

— Bai, kostatu egin zait. Hemen orduan irakasle bat zegoen, Natalia, eta horrek espainol ikasgela baten ar-dura zeukan, bertara iristen ginen atzerritarrentzat. Ikasgela batean geunden berarekin. Espainolez hitz egin eta hitzak ematen zizkigun, eta idazten ere irakasten zigun. Aditzak hasieran infinitiboan erabiltzen genituen, aditz-denborak erabili gabe. Amak, etxean, beti esaten zigun hizkuntza gure kontura ere ikasi behar genuela. Bulgariako hiztegiak genituen... Baina ahoskera eta gainerako guztia ikasgelan erabilita ikasten da, ikaskideekin praktikatu. Irakasle horrek asko lagundu zigun. Oso ona zen. Ezagutu dudan pertsonarik onenetarikoa da.

Sartzen zineten gainerako eskoletara?

— Bai, hasieran ez nuen ezer ulertzen eta batzuetan aspertu egiten nintzen. Egunean bi edo hiru ordutan espainoleko eskolara joaten ginen, beste eskola batzuetara joan beharrean, eta horrela, apurka-apurka... Hizkuntza erraz ikasten da kasuan kasuko herrian egonez. Lagun-garriena eskolak dira, eta gero, espainolekin praktikatzea. Irakurtzea ere oso ona da, irakasleen laguntza edukitzea. Iraunkortasuna eta gogoia behar dira...

Nola moldatu zinen inguru berrian, lagunekin...? Erraz egin dituzu lagunak?

— Benetako lagunak edukitzea ez da erraza. Ikaskideekin egoten naiz, baina horiek euren lagun-taldea dute. Atsedenealdian ibiltzen naiz eurekin, baina eurek lehen-dik dituzte lagunak... Ribaforadan ahizpekin irteten nintzen asteburuetan. Neska-mutil asko ezagutzen genituen, agian jakingura zeukatelako. Orain, ikasturtean, ikaske-teen, ez naiz askorik ibiltzen espainolekin, batik bat ahizpekin ibiltzen bainaiz.

Nola egokitu da zure familia? Arazoak izan dituzte?

— Aitari kostatu zitzaion gehien. Iruñera beste lagun bat-ekin iritsi zen, espainolik jakin barik eta diru gutxiarekin, eta Iruñea oso garestia da; Bulgariatik ere dirua bidali behar izaten zitzaion. Cabanillasera etorri zen, uste dut, eta hiztegia eskuan hartuta ibili behar izan zuen lan bila. Nekazaritzan hasi zen eta udalen baterako lanak egiten, eta gero, kamioilari lana sortu zitzaion, bera horrexetan

ibili baita beti Bulgarian. Berak bertan ditu gurasoak, anaia eta lagunak. Nire iritziz, horien hutsune handia dauka. Baina bertan gaudenean, laster haxe datorkio burura eta itzuli egin nahi du berriro. Ekonomikoki, Bulgaria ez dago oso ondo, ez da diru askorik irabazten, lanean gogor egin arren. Agian, berak ikusten du hemen bizitza hobea dela guretzat.

Zuri buruz mintzatuko gara orain. Nola ikusten duzu hemengo jendea?

— Ez nuke esaten jakingo. Esaten dute herri batera iritsi eta batera, herri hori ezagutzen ez denean, lehenengo as-tean batek liburu osoa idatzi ahal duela horri buruz, denak eramaten baitizu arreta. Baina, orain, agian ezin izango nuke Bulgariarekin konparatu, ez nago oso seguru.

Harrera ona egin dizue jendeak, maite zaituzte, ondo tratatzen zaituzte?

— Uste dut baietz. Familian jendearekin adeitsu izaten irakatsi digute, gu geu izaten eta garen modukoak izaten, irekiak izaten... Giro alai hazi naiz, abenturak atsegin ditut, jendea ezagutzea.

Antzerkia atsegin omen duzu...

— Bai, txikitatik antzeztea atsegin izan dut; uste dut etxean beti izan naizela ona antzeztzen.

Ikasketei dagokienez... Zer egin zaizu zailen? Zure herriaren aldean desberdintasunak aurkituko zenituen...

— Eskola sistema oso desberdina da Bulgarian. Adibidez, irakasleei eta pertsona nagusiei berorika egiten zaie. Niri asko kostatu zitzaidan, ezin nintzen ohitu irakasleei berorika tratatzen. Han errespetu handiz tratatzen zaie.

Eskolako orduak desberdinak dira. Bertan laburragoak dira, eta klase bakoitzaren ostean 10 minutuko atsedenealdia dago. Gainera, 3. orduaren ostean atsedenealdi apur bat luzeagoa dago. Egunean 5 edo 6 eskola-ordu daude. Arratsaldeetan ere eskola daukagu. Bi ebaluazio baino ez daude, otsailekoa eta ekainekoa. Lehenengo ebaluazioan goizetan joaten da eskolara, goizeko zortzietatik ordu bata eta erdietara. Arratsaldean beste txanda bat zegoen, ordu bata eta erdietatik seietara edo sei eta erdietara. 1. eta 2. mailak goizetan doaz, eta 3. eta 4. mailak arratsaldeetan. Gero, bigarren lauhilekoan alderantziz da, 1. eta 2. mailak arratsaldean doaz, eta 3. eta 4. mailak goizean. Hemen, hasieran gogor egiten zitzaidan aulkian bi ordu jarraian egotea.

Gero, nire ustez, bertan zientzietako ikasgaietan maila apur bat altuagoa dago. Hemen ikasten diren gauzak nik ikasita nituen Bulgarian. Eta Kixote Mantxako ere bai! 11 edo 12 urterekin nahitaez irakurri behar izaten genuen liburua. Hemen geroago da eta askok ez dute irakurri. Historia ere desberdina da gauza batzuetan, jakina. Espainiako historia ez nuen asko ezagutzen, baina munduko historiari buruzko beste gauza asko bai.

Ikasgela

Etorkizunerako planik baduzu? Zer izan nahi duzu nagusitan?

— Ez daukat oso argi. Antzerkia atsegin dut eta arkitektoa izan nahi nuke. Baina.. agian antzerkia zaletasuntzat baino ez. Gainerakoa oraindik ez dakit. Agian informatikarekin zerikusia duen zerbait...

Esan nahi duzu beste zerbait? Zer deritzezu hementxo gazteei?

— Denok izan behar dugu gu geu, eta ez zaie horrenbeste begiratu behar besteek esango dutenari. Zintzo jakatu behar da. Pentsatzen dena esan behar dugu. Batzuetan txarto hitz egiteko beldur izaten gara..., gainerakoek gure pentsaera ez onartzearen beldur.

Eta jendeari dagokionez, zer tratatu eman behar-ko litzaienke beste herri batzuetatik iritsitakoei?

— Iristen denari laguntza ahalik eta handiena eman behar zaio. Zure herria uzten duzunean esku hutsik etortzen zara. Nire ustez, maitasuna eta ulermena behar da, zurekin hitz egitea, zure lekuan jartzea, hizkuntzaren zailtasunetarako laguntza ematea. Guk Lituaniako neska bat ezagutu genuen Ribaforadan; bakarrik zegoen autobus geltokian; espainolek ez zuten askorik hitz egiten berarekin eta gu bera laguntzen saiatu ginen, galderak egiten zizkigun...

Eta institutua?

— Institutua ondo dago orokorrean. Arauak zailak dira niretzat, hori bai. Batzuetan arau batzuk ez ditut ondo ikusten.

Gero beste gauza bat ere badago. Nire adineko gazteek eta gazteagoek ez dute ikasteko gogo handirik; gurasoek gauza asko eginda ematen dizkiete, gauza guztiak eskura dituzte eta ez dute ikasteko denbora aprobetxatzen, ez dute hori ondo baloratzen. Dirua ematen duten lanak nahi dituzte, baina ez dute etorkizunean pentsatzen. Nire iritzian, gero damutu egingo dira. Nire ahizpa, esate baterako, eredutzat daukat. Larunbatetan eta igandeetan taberna batean egiten du lan, nik bezala. Iaz Maila Ertaina egin zuen, erizaintzako laguntzailea da,

eta seme-alabak zituzten emakumeekin egin zuen hori, emakumeok gaztetan ikasketak utzi eta gero berriro egin baitzioten ikasteari. Berak oso atsegin zuen biologia. Ikasturtearen amaieran, maiatzaren inguruan, lana aurkitu zuen dentista batekin, baina azterketak ere egin behar zituen. Eta aldi batean lan egin eta eskolara joan batera egiten zituen; hau da, maila ertaineko azterketetarako ikasi eta, gainera, asteburuetan tabernan egiten zuen lan. Eta guztia gaingitu eta maila ertaina atera zuen. Lan horretan jarraitzen du, baina orain ikasten jarraitzea erabaki du. Aurten institutura etorriko da gabeiz Batxilergoa ikastera. Aurrera jarraitu nahi du, gauza gehiago lortu nahi duelako. Ilusioaren eta adoreaaren erudia da.

Etortzen zareten batzuei giza balioak nabaritzen zaizkizue, eta horiek guztiz beharrezkoak dira geure artean, nire ustez.

— Gurasoek arduratsua izatea irakatsi didate gazte-gaztetarik. Gauzaren bat egin ondoren, horren erantzukizuna izaten erakutsi didate. Hemen gurasoek seme-alabak zigortu egiten dituzte, gauzaren bat txarto egiten badute edo azterketak gaingitzen ez badituzte. Amak sarritan egiten zuen hitz gurekin. Aholkuak eta adorea ematen zizkigun. Baina, batik bat, eredugarritzat ditugu bera eta aita. Gauzak gure kontura egiten irakatsi digute, gauza horiek benetan nahi ditugunean, baina besteek esango duenaren beldur edo besteek egiten dituztelako.

Zer nahiko zenuke 5 urte barru...

— Lanpostu duinen batean ibili, atsegin dudan lanposturen batean. Ez dakit... hauxe esan ahal izatea: Zer ondo, lanera! Halaber, nire herriko egoerak hobera egitea nahiko nuke. Gauzek hobera egitea. Nire herriak tradizioak eta gauza on asko ditu, eta ez diot hori ni bertakoa naitzelako. Jendeak lehen sufritu egin du eta lan asko egin behar izan du, diru gutxi irabazita. Oso gogorra izan da. Hobeto bizitzea merezi dute.

Eskerrik asko, Vanya, hobe zure nahi guztiak betetzen badira eta hobe denok ere zuk esandakoari buruzko gogoetak egiten baditugu.

Prentsako albistea

— “Quijotearen irakurketa HEOKo hizkuntza guztietan”. Kultura, gizarte eta kirol munduko pertsona ezagunek parte hartu zuten. Diario de Navarra 05-04-21.

— “Ia 2.000 ume eta gazte inguru supergaituak dira, baina askok ez dakite”. Nafarroako unibertsitateak atzo talentu apartekoen gurasoei eskainitako jardunaldia hartu zuen. Diario de Navarra 05-04-24.

— “Umeen %10ak ez daki ongi idazten 11 urte dituztenean”. Parisko Raymond Poincaré Ospitaleko sendagile batek konferentzia eman du CIMA delakoan. 2005. urteko ekainaren 12ko Diario de Noticias.

— “¡Vamos a leer! (Goazen irakurtzera)” eskola egitarauaren gai berria irakurketa sustatzeko. 1996. urtean sustatuta, Udalak ikastetxeei eskaintzen die. 2005. urteko irailaren 21eko Diario de Noticias.

— “Karrera kopurua erdira murriztu liteke Europara egokitzeke”. Gizarte Zientzien titulazioak hogeita lautik hamarrera murriztuko lirake. 2005. urteko maiatzaren 7ko Diario de Navarra.

— “Europako unibertsitate espazioak ikasleen mugikortasuna erraztuko du”. 2010. urterako, EBko unibertsitateek titulazioak partekatuko dituzte. 2005. urteko maiatzaren 17ko Diario de Navarra.

Prentsako albistea

- “Ahaleginaren saria”. Idoia Jorajuría Galetx izeneko iruindarrak bihar Selektibitatea hasiko du. Garun-perlesia du jaio zenetik eta Batxilergoko 2. maila bukatu berri du Navarro Villoslada BHI. 2005. urteko ekainaren 12ko Diario de Navarra.
- “Ikasleen gurasoek ez dute taldeko kontzientziarik”. Familiak ikastetxeetan parte hartzera animatzen ditu baina ez arazoak sortzen direnean bakarrik. Abillo de Gregorio irakasleak Concapak antolatutako jardunaldi batzuetan parte hartu zuen. 2005. urteko ekainaren 7ko Diario de Navarra.
- “Ikasle musulman bat eskolara zapia buruan daramala datorrenean”. Amelia Barquín. Aula de Innovación Educativa aldizkaria, 143-144 zenbakia.
- “Irakasleek diziplina ezarri behar dute, ez autoritarismoa”. Elkarrizketa Enrique Múgica jaunarekin. Herriaren Defentsaria. 2005. urteko uztailaren 4ko Diario de Navarra.
- “Hizkuntzak, garrantzitsuak denontzat”. Hozkuntza bat baino gehiago erraztasunez hitz egitea, praktika gomendagarria izateaz gain, dagoeneko beharrezkoa da heziketari begira. 2005. urteko abuztuaren 28ko Diario de Noticias.
- “IHEOk honako kanpaina hau aurkeztu du: Ez egin tximinoarena, ikasi hizkuntzak” 2005. urteko irailaren 17ko Diario de Noticias.

Bibliografia

- “Diversidad curricular en las ciencias”. Saiakuntza-zientzien didaktika. Monografikoa. Revista Alambique aldizkaria, 44. zkia., Edi. GRAÓ.
- “La normativa”. Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika. 39. testua, Edit. GRAO.
- “Informe PISA 2003”. Ikastea biharko mundurako. Ikasleen nazioarteko ebaluaziorako programa. OCDE.
- “Los derechos del niño en la escuela”. Hezkuntza bat herritarrentzat. Jean Le Gal. Edit. GRAO 212. zkia., Biblioteca del Aula.
- “Intercambio de experiencias”. Alambique aldizkaria, 45. zkia., Saiakuntza-zientzien didaktika. Edit. GRAO
- “Cine y Literatura”. 40. testua, Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika. Edit. GRAO.
- “La enseñanza en los centros educativos católicos. 2004-05 ikasturtea. Fere Centros Educativos Católicos.
- “El liderazgo pedagógico”. Eskolako gaiak. 2005eko maiatza.
- “El desencuentro del alumnado con las matemáticas. Causas y Soluciones. Pmadres CEAPA aldizkaria, 82. zkia., apirila/maiatza.
- “Informe España 2005”. Bere errealitate sozialaren interpretazioa. Encuentro Fundazioa.
- “El profesorado: Nuevas demandas educativas”. Monografikoa, Revista Organización y Gestión Educativa aldizkaria”. 2005eko maiatza-ekaina.
- “Hacia una educación plurilingüe”. Organización y Gestión Educativa aldizkaria. Monografikoa, 4. zkia. 2005eko uztaila-abuztua.
- L’education a la citoyennete a l’ecole en Europe”. Eurydice.
- “Primer Destino”. Salvador García Jiménez. Murtziako Eskualdeko Eskola Kontseilua.

Legeriaren laburpena

- Hizkuntza Eskola Ofizialen oinarritzko zikloa eskuratzeko azterketaren proba definitzea. 126/2005 ebazpena (2005. urteko apirilaren 13ko 44. NAO).
- Hizkuntza Eskola Ofizialen Goi Mailako Zikloa gainditzeko azterketaren proba definitzea. Otsailaren 28ko 164/2005 ebazpena (2005. urteko apirilaren 15eko 45. NAO).
- Gaztelania eta Euskal Hizkuntzako errendimendu estandarrak ezartzea, D eta A ereduetan, bai eta Matematikakoak Lehen Mailako Irakaskuntzarako ere. Urtarrila-ren 20ko 11/2005 ebazpena (2005. urteko maiatzaren 2ko 52. NAO).
- Ingeles Hizkuntzako errendimendu estandarrak Nafarroako Haur eta lehen Hezkuntzako zikloetarako. Ekainaren 21eko 566/2005 ebazpena (2005. urteko abuztuaren 31ko 104. NAO).
- 2005-2007 ikasturterako Hobekuntza Plana ezarri dute Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, Atlante Proiektuarekin lotuta. Apirilaren 12ko

Legeriaren laburpena

293/2005 ebazpena (2005. urteko maiatzaren 4ko 52. NAO).

- *Kalifikazioen Sistema Lanbide Heziketa garatzeko jarraibideak*. 05/04/4ko erabakia. 2005. urteko maiatzaren 20ko 60. NAO.
- *Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Ikuskapenaren antolamendu eta funtzionamenduaren erregulazioa*. Apirilaren 26ko 83/2005 Foru Agindua (2005. urteko uztailaren 1eko 78. NAO) Ekainaren 28ko 592/2005 Ebazpena (2005. urteko abuztuaren 1eko 91. NAO).
- *Zerbitzuen Ikuskapen Teknikoaren Zerbitzuaren lau urterako jarduketaren plan orokorra*. 2005. urteko maiatzaren 31ko 502/2005 Ebazpena (2005. urteko uztailaren 15eko 84. NAO).
- *90/1998 Foru Agindua aldatzen du, horrek sustapen eta konpentsazioko neurriak behar dituen DBHko bigarren zikloko ikasleen hezkuntzako erantzun bereziak ezartzen ditu*. Ekainaren 28ko 118/2005 Foru Agindua (2005. urteko abuztuaren 19ko 99. NAO).

Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Ikuskapenaren antolamendu eta funtzionamenduaren erregulazioa. Apirilaren 26ko 83/2005 FA, uztailaren 1eko 78. NAO

Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuetako kalitatea hezkuntza sistemaren funtsezko elementuetako bat da. Elementu honen garantiak gizarte elementuak, hezkuntzaren zuzeneko protagonistak eta kalitatea laguntzen duten faktoreei lehentasunezko arreta eskaini behar dien botere publikoak konprometitzen ditu. Hezkuntza sistema osoaren ikuskapena eta ebaluazioa Espainiako legeriak kalitateko printzipioen artean aitortu ohi dituen printzipioak izan dira. Horrela aitortzen du IKLOren 1 k) artikulua.

Legeak xedatzen du ikuskatzeko eginkizuna botere publikoen eskumen eta erantzukizuna izango dela legeak betetzen dituztela, eskubideen garantia eta hezkuntza prozesuan parte hartzen dutenen betebeharrak bete ditzaten eta hezkuntza sistemaren eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea bermatze aldera. Bere eginkizunak IKLOren 105. artikuluan jasota daude, eta honen edukia ikastetxeen partaidetza, ebaluazio eta gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 LOren Hezkuntza Ikuskapenaren IV. titulua-ren 36. artikulua-ren ia berbera da, lege horrek, bestalde, Ikuskapenaren eginkizunak zehazten zituen LOGSEren 61. artikulua-ren 2. atala indargabetu zuen.

Xede hauek lortzeko, 365/1999 FDak ikuskapen eginkizuna araupetu zuen, behar kalitateko irakaskuntza lortzean esku hartzen duten faktore guztiek zuzentasun eta harmoniaz funtzionatzen dutela bezala egiaztatu ahal izateko.

Dekretu honek Hezkuntza eta Kulturako Kontseilari baimena eman zion beharrezko xedapen guztiak eman ditzan burutzapen eta garapena egiteko. FAK aipatutako

FD horretan jasota dauden alderdi orokorrak garatu eta zehazten du.

Ikuskapenaren antolaketa eta funtzionamenduko printzipioak hierarkia, plangintza, taldean lan egin, espezializazio, profesionaltasun eta ebaluaziokoak dira. Eginkizunak titularitate publiko zein pribatuko ikastetxeak kontrolatu eta ikuskatzekoak; ebaluaziokoak; aholkularitzakoak; hezkuntza administrazioari informazioa ematekoak; irakaslearen eginkizunaren hobekuntzan laguntza eta babesa ematekoak dira.

Ikuskapenaren eginkizunarekin lotutako gaitasun orokorrak eta ikuskatzaileen gaitasun bereziak sustatzea; etengabeko hobekuntza eta kalitatekoa, taldean lan egitea, soiltasuna eta eraginkortasuna, honako hauek dira Zerbitzua antolatzearen irizpideak.

Zerbitzua Zerbitzuaren Zuzendaritzan, ikuskapen eremuetan, curriculum arloetan eta arlo berezietan antolatzen da.

Eremuek antolamendu eta funtzionamenduaren funtsezko egitura osatzen dute; eginkizun orokor eta bereziak eta zeregin jakin batzuk egozten zaizkien lau eremu dituzte. Ikuskatzaileak eremu egokietara atxikitzen dira. Zonalde bakoitzeko ikuskatzaileen taldea ikuskatzaile koordinatzaile batel zuzentzen ditu. Koordinatzaileen multzoa, zerbitzuaren zuzendaritzarako laguntza taldea da.

Curriculum arloak ikuskatzaileen antolaketa eta jarduna egiteko esparru dira hainbat maila, ikastetxe, programa eta zerbitzuetan, ikuskapenaren eginkizunak egin ditzaten gainbegirapen eta ebaluazio eta Sailaren bestelako atal batzuekin elkarlanean aritzeko esparruan. Arloko ikuskatzaile guztiek ikuskatzaile arduradun batek zuzendutako lantaldea osatzen dute.

FDn aurreikusitakoez gain, 12 arlo berezi sortu dituzte. Kalitate eta kudeaketako arloa, Giza baliabideena, Hezkuntzako premia bereziarena, Kultur aniztasun eta orientazioko, Lanbide heziketakoa, Teknologia berriena, Ikastetxeena, Irakasleen prestakuntzarena, Ikasleen ebaluazioarena, Haur eta Lehen hezkuntzako, Espainiar eta Euskal Hizkuntza eta Literaturakoa, Araubide bereziko irakaskuntzena. Ebaluazio arloan, FDn adierazitakoa, honako hauek osatuta dago: Programak ebaluatzeako arloa, Irakasleak Ebaluatzeako, Nazioarteko ebaluazio eta hezkuntzako adierazleen proiektuena.

Ikuskapenaren funtzionamendua planifikatua, koordinatua eta lantaldean izango da; ikastetxeen antolaketa eta pedagogiako autonomia aitortuko du; partaidetza eta erantzukizunak hartzea sustatuko du; informazioa, lankidetzeta eta ikastetxe eta irakasleek ikuskapeneko jarduketan parte hartzea. Jarduerak prestakuntza eta aholkularitzako ikuspegia izango du, eta ebaluazioko kulturarantz orientatuta egongo da.

Zerbitzuak lau urterako jarduneko plan orokorra du eta urteko planek garatzen dute.